



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Gazteak eta Euskara Gasteizen

2012ko maiatza



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

SOZIOLINGUISTIKA
KLUSTERRA



Soziolinguistika Klusterra, 2012
ISBN: 978-84-695-4131-9



0 AURKIBIDEA

1	SARRERA	2
2	KOKAPENA	3
2.1	Jatorria	3
2.2	Ikergaia	3
3	HELBURUAK	5
4	EMANDAKO URRATSAK	6
4.1	Testuinguratzea	6
4.2	Informazioa biltzea	8
4.3	Edukien azterketa	10
5	AZTERKETAREN EMAITZAK	12
5.1	Euskararen irudia eta euskararekiko jarrera eta aurreiritziak	12
5.2	Euskararen bilakaera soziala eta hizkuntza-politika	19
5.3	Hizkuntzen erabilera-ohiturak eta arauak	24
5.4	Hizkuntzen ikaskuntza, gaitasuna eta ezaugarriak	29
5.5	Etorkinak eta euskara	33
	EMAITZEN SINTEZIA	35
6	AURRERA BEGIRAKO ILDOAK	38
6.1	Interbentziorako lehentasunezko ardatzak:	39
7	ERANSKINAK	46
7.1	Eranskina: BESTE LANEN AZTERKETA	47
7.2	Eranskina: DESKRIBAPEN KUANTITATIBOA	53
7.3	Eranskina: KONTAKTAZIO GALDETEGIA	62





1 SARRERA

Txosten honetan aurkezten dena hilabetetako lanaren emaitza da. Gasteizen euskarak garatzen eta zabaltzen jarrai dezan lanean ari den hainbat pertsonaren ezinbesteko laguntzaz burutu du lan hau Soziolinguistika Klusterrak. Ondorengo orrietan bildutakoak eraldatu nahi den errealitatea hobeto ezagutzeko balio dezakeen ustetan, parte hartu dutenei eskerrak emanez hasi nahi genuke. Mila esker beraz Iñaki Martinez de Lunari, Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua eta Gazteria Ataleko langileei, kontaktazio lanetan lagundu diguten elkarte, talde eta erakundeei eta, bereziki, euren usteak eta iritziak naturaltasunez adierazi dizkiguten gazteei.



2 KOKAPENA

2.1 Jatorria

Gasteizko Udalak, bere 2010-2012rako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) eta bere Gazte Planean (2010-2012), gazteak eta euskarari buruzko helburu espezifikoak dauzka finkatuta. Besteak beste, EBPNn aipatzen da gazteekin hizkuntza-normalizazioaz hausnarketa egin beharko litzatekeela eta horretarako oinarria edukitzeko, errealitatea hobeto ezagutzera bideratutako ikerketak egin beharko liratekeela.

Soziolinguistika Klusterrak urteak daramatza gazteak eta hizkuntza-erabileraren gaia alderdi ezberdinetatik jorratzen. ARRUE proiektuan eskola-giroko hizkuntza-erabilera ikertzen da; Urtxintxa eta Topagunearekin, *Gazteen erabilera: perspektiba eta prospektiba* proiektua, *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa* lana eta *Erabileraren GPSa* materiala prestatu dira; azkenik, *Nerabeak, interneteko sare sozialak eta euskara* izeneko egitasmoa ere garatu zuen Kultur Kabiarekin elkarlanean.

Honela, bada, bi aldeek bat egin dute ikerketa honen gaiaren inguruko interesean.

2.2 Ikergaia

Lan honen jatorria, esan bezala gazteek euskararen egoeraz eta bere bilakaerarekin lotutako gaiez duten ikuspegia hobeto ezagutzeko beharrean dago. Gasteizko gazteriaren profil soziolinguistikoan aldaketak eman dira eta ematen ari dira. Aldaketa horiek ulertu eta kontuan hartzen hastea, ezinbesteko zeregina da hizkuntza-plangintza egokia eta eraginkorra garatzeko.

Proiektu honen emaitzak ahalik eta erabilgarrienak izan daitezen eta ikergai zabalegiak emaitzak lausotu ez ditzan, fokua sektore zehatz batean jartzea erabaki da.

Euskararen ezagutzari dagokionez Gasteizen, Euskal Herriaren zatirik handienean bezala, euskaraz dakitenen taldea handitzen eta ez dakitenena txikitzen ari da. Joera horren ezagutzatik, etorkizunean etor daitekeenari aurre hartu nahian, proiektu hau **gazte euskaldunetan** zentratzea erabaki da.



Adinari dagokionez, gaztea nor den definitzea ez da gauza erraza. Definizio horretan adin-tarte zabalagoa sartzen dela garbi izan arren, kasu honetan **18 eta 24 urte bitarteko gazteekin** lan egin da. Gazte hauek hizkuntzarekin lotutako ibilbide interesgarria izan dezaketela ikusten da eta gainera ibilbide horren kontaketa kritikoa egiteko gaitasuna dutela.

Azkenik, emaitzak mamitsuak izan daitezen eta errealitatearen argazkia partziala izan ez dadin, proiektuan kontuan hartu dira gazte hauen **generoa, familietan bizi duten testuingurua** eta **hezkuntza sisteman egindako bidea**.





3 HELBURUAK

Ikerketa honek euskararen erabilera sustatzera bideratutako ekimenen abiapuntu izan nahi du. Ikerketa osatzen duen gizarte-taldeari zuzentzerakoan, ekimen horiek eraginkorrak izan daitezten, baliatuko den diagnostikoa izan nahi du.

Xede horri begira, gazteekin hausnartu da hizkuntzekin duten harremanaren inguruan, ondorioak atera eta gazte gehiago hausnartzera bideratzeko.

Asmo horiekin, honela definitu ziren zehazki ikerketaren helburuak:

- **Gasteizko 18 eta 24 urte bitarteko gazte euskaldunek hizkuntzen inguruan dituzten bizipenak eta pertzepzioak ezagutzea.**
- **Gazteak hizkuntzaren inguruan hausnarketa egitera bideratzea eta euren talde naturaletan euskararen erabilera hausnarketa pizteko gakoak identifikatzea.**



4 EMANDAKO URRATSAK

Atal honetan Gasteizko gazte euskaldunen euskararekiko ikuspegia jasotzeko zein bide jarraitu den azalduko da. Bide horretan sortutako hainbat euskarri eta material txosten honen eranskinetan aurki daitezke.

3 fase nagusi izan ditu proiektuak eta hauetako bakoitzaren barruan hainbat urrats eman dira:



4.1 Testuinguratzea

Ikerketa egoki bideratzeko, beharrezko ikusi da ikergaia bera testuinguratzeko lana hartzea. Alde batetik, gazteek euskarari buruz duten ikuspegia nola aztertu izan den eta azterketa horietatik zein ondorio atera izan diren jakitea komenigarri ikusi da. Beste alde batetik, Gasteizko gazteria euskalduna diogunean zertaz ari garen irudikatzeko, sektore honen ezaugarri nagusiak ezagutzea beharrezko ikusi da.

Ikerketa honen antzeko ikergaiak dituzten beste batzuk egin izan dira azken urteotan. Euskarari buruzko iritziak, gazteen erabilera, gazteen euskarari buruzko diskurtsoa, hizkuntza-jarrerak eta antzekoak aztertu dituzten lanak ezagutzea kokapenerako lagungarri izan da. Antzeko gaien inguruko ikerketetatik ikasgai interesgarriak atera daitezke; bai ondorioetatik eta bai lan-moldeetatik. Elkarrengandik gertu dauden gaiak lantzen dituzten egitasmoen artean osagarritasuna bilatzeak onurak besterik ez dakartza. Egina dagoen lana baliatzen delako, berriz egiteko beharrik gabe, eta akatsak errepikatzea saihesteko modu bat delako.

Ikerketaren hainbat unetan bereziki erabilgarriak izan dira beste lan hauetako ikasgaiak: ikerketaren diseinu teknikoan gazteen profilak definitzean; eztabaida-saioretako gidoiak prestatzean; edo eztabaida saioretako edukien azterketa antolatzean, esate baterako.

Kasu honetan, zortzi lan aztertu dira, partzialki edo osotasunean, ikergaiaren aurrean kokatzeko. Hauen artean, ikerketa kuantitatiboak, kualitatiboak eta bestelako hausnarketak daude.

- AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I. eta BARREÑA, A.; Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak (2009) Eusko Jaurlaritza.
- SIADECO; Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa. 30-45 urte arteko herritar euskaldunak (2010) Arrasate Euskaldun Dezagun.
- AIZPURUA, J. "Gizarte sareak + Euskara 2.0" (2010) Udaltop
- SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, URTXINTXA eta TOPAGUNEA. Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa. (2010) Soziolinguistika Klusterra
- AZPIAZU, Luis; "Gazteak, musika eta euskara. Arrasateko gazteen iritziak" (2010) BAT soziolinguistika aldizkaria. 78. Zenb. 17-70 orriak
- IBARRA, Orreaga; Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa (2011) Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- PUJOLAR, J Llengua i joves : usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana (2010) Generalitat de Catalunya. Secretaria de Joventut
- BAXOK, E. eta COYOS, J.B.; Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian (2011) Euskaltzaindia.

7.1 eranskinean, erreferentzia horietara loturak eta bakoitzaren edukietatik nabarmendutako zenbait ondorio eta ikasgai biltzen dira.

Lehenago esan bezala, antzeko gaien inguruko lanak aztertzea ikerketa testuinguruan jartzeko moduetako bat da. Baina beste alde batetik, Gasteizko gazte euskaldunetan zentratutako ikerketa izanik, sektore honen gaineko informazio-bilduma baten gainean lan egitea beharrezko ikusten zen. Bilduma hori, besteak beste, Gasteizko gazteriaren ezaugarri demografiko eta soziolinguistiko nagusiak aztertzeko, berariazko datu-jasoketarik egiteko beharrik gabe, estatistika ofizialetatik elikatu da. Informazio hau guztia ikerketaren diseinuan



baliagarri izan da. Bertan biltzen diren datu gehienak EUSTATen bidez eskuratu dira eta Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketari dagozkionak Soziolinguistika Klusterretik. Ondorengo gaiei buruzko datuak bildu dira deskribapen kuantitatiboan:

- Euskarazko gaitasuna
- Lehen hizkuntza
- Etxeko hizkuntza-erabilera
- Kaleetako hizkuntza-erabilera
- Lehen hizkuntza, euskarazko gaitasunaren arabera
- Etxeko hizkuntza-erabilera, euskarazko gaitasunaren arabera
- Ikasketetako hizkuntza-ereduak

Gasteizko gazteria euskaldunaren oinarritzko ezaugarriak ezagutzeko erabili diren datu kuantitatiboak, beraz, **7.2 eranskinean** daude jasota. Bereziki erabilgarriak gertatu dira datuok landanaren diseinuan.

4.2 Informazioa biltzea

Aurreko urratsetan ikergaiaren testuingurura hurbiltzeko estatistikak eta bibliografiaren azterketa erabili ostean, ikerketaren helburuak kontuan hartuta, gazteen iritzi eta bizipenei buruzko informazioa eskuratzeko erabilitako metodologia nagusia kualitatiboa izan da.

Izan ere, ikerketak bilatzen duena aktore sozial batzuk (Gasteizko 18-24 urteko gazte euskaldunek) euren eta inguruko jokabideei (euskararen erabilera, ikasketa, irakaskuntza, politikak) ematen dizkieten zentzuak eta esanahiak ezagutu eta horietan sakontzea da. Helburu horri begira, aktore hauek aitortzen dituzten praktikak eta darabiltzaten diskurtsoak izan dira azertuak. Lan honetan, gainera, aztertutako pertsonen gizarte-egituran duten kokapena kontuan izan da, mota honetako hurbilpen konprentsibo-estrukturalak eskatzen duen bezala.

Ikerketaren helburuak eta bestelako baldintzak (epeak, baliabideak...) kontuan hartuta, eztabaidaldean teknika erabiltzea erabaki zen, zehazki. Bi eztabaida-saioko diseinu-teknikoa izan du landan.



Udala eta Soziolinguistika Klusterraren artean, ikerketaren helburuak gogoan izanik, gazteen ikuspegiak jasotzerakoan kontuan hartu beharreko aldagaiak zein diren adostu zen:

- a) Adina
- b) Generoa
- c) Euskararen ezagutza
- d) Ikasketetako hizkuntza
- e) Familiako baldintza soziolinguistikoak
- f) Antolatutako eragileetan parte hartzea

Beraz, guzti horiek kontuan hartuta, bi eztabaida-taldeetako parte hartzaileen profilak osatu dira. Profil zehatz horretako jendea bilatzeko, Udaleko Euskara eta Gazteria sailen harreman-sarea baliatu da. Mota guztietako elkarleen bidez, ikerketa batean parte hartzeko prest zeuden gazteak bilatu dira, ikerketaren gaia edo helburuen berri eman gabe. Kontaktatutako pertsonak kontaktazio-galdetegi bat bete dute (7.3 eranskina), beraien profil zehatza ezagutzeko eta talderako interesgarriak zirenekin harreman zuzenean sartu ahal izateko.

Ikerketak Gasteizko 18-24 urte bitarteko gazte euskaldunen ikuspegia jaso nahi duenez, eztabaida-saioetan parte hartu duten kide guztiek jaiolekua, adina eta hizkuntza-gaitasunari dagokionez profil horretan sartzen ziren. Horren barnean, saioetan lehen hizkuntzari dagokionez, aniztasuna bermatu da, nahiz eta 3 urte arte gaztelaniaz soilik ikasi zutenak gehiago izan. Ikasketetako hizkuntzari dagokionez, parte hartzaile gehienak D ereduan ikasitakoak dira, Gasteizko gazte euskaldunen gehiengoaren ezaugarria delakoan.

Horrez gain, bi eztabaida taldeak desberdinak izan dira bi gairen arabera:

- 18-24 urteko tartean, saio batean gazteagoak eta bestean zaharagoak elkartu dira (18-21 eta 20-23). Adin-tarte horretan 3 urte baino gehiagoko aldea duten pertsonak eztabaida berean elkartzea ez zen komenigarri ikusten.
- Gazteen arteko harreman-sare antolatuei dagokionez, arlo desberdinetako dinamiketan parte hartzen duten gazteak egotea bermatu da. Saioetako batean kirola, kultura eta aisialdian dihardutenak eta beste saioan kultura eta gizarte-mugimenduetan murgildutakoak.

SAIOA	HERRIA	EUSKARAZ HITZ EGITEKO GAITASUNA	ADINA	LEHEN HIZKUNTZA	IKASKETETAKO HIZKUNTZA- EREDUA	SEXUA	PARTE HARTZE ESPARRUA
A	Gasteiz	Ona	18	Euskara	D	Neska	Aisialdi-taldea
	Gasteiz	Ona	19	Gaztelania	D	Mutila	Musika
	Gasteiz	Ona	20	Biak	D	Mutila	Aisialdi-taldea
	Gasteiz	Ona	21	Gaztelania	D	Mutila	Kirol-taldea
	Gasteiz	Ona	21	Euskara	D	Neska	Kirol-taldea
B	Gasteiz	Ona	20	Gaztelania	D	Neska	Lan asistentzialak
	Gasteiz	Ona	22	Euskara	D	Mutila	Auzo-elkartea
	Gasteiz	Ona	23	Gaztelania	D	Neska	Kultur-taldea
	Gasteiz	Ona	23	Gaztelania	B	Neska	Gizarte-mugimendua

Eztabaida-saioetarako gidoiak prestatzerakoan, beste ikerketen azterketak emandakoa oso baliagarria izan da; batez ere hizkuntzaren inguruko hautemateaz hitz egitean jorratu daitezkeen gaiak kontuan hartzeko. Honela bada, gaitegi zabal bat erabili da eztabaida-saioak gidatzeko, gidoi itxi baten ordean.

Eztabaidetako taldeak txikiak izan arren, kontaktazio-lanean topatutako oztopen ondorioz, bata 2011ko abenduan eta bestea 2012ko martxoan burutu dira. Bi saioak Gasteizko gizarte-etxe bateko gela batean burutu dira, leku eroso eta neutralean. Ordu bat eta ordu eta erdi arteko iraupena izan dute bi saioek. Soziolinguistika Klusterreko teknikari batek egin ditu eztabaiden bideratzaile lanak.

4.3 Edukien azterketa

Eztabaida saioen grabazioen transkripzioetatik abiatuta egin da edukien analisisa. Gidoi bezala erabilitako gaitegia izan da jasotako informazioa antolatzeke oinarria, nahiz eta edukiak aztertu ahala, egokitzen joan den. Landa-lanean jasotako informazioa gordina antolatu eta laburtu da, aurrez zehaztutako intereseko gaiei dagokiona jasoz eta interesekoa ez dena baztertuz. Adostasun eta desadostasuneko iritzi edo pertzepzioei bereziki erreparatu zaie.



Saio bakoitzean jasotako funtsezko informazioa, bost gai-multzo handietan sailkatu da; ondorioak azaltzerakoan erabiliko diren multzo berdinak:

- Euskararen irudia eta euskararekiko jarrera eta aurreiritziak
- Euskararen bilakaera soziala eta hizkuntza-politika
- Hizkuntzen erabilera-ohiturak eta arauak
- Hizkuntzen ikaskuntza, gaitasuna eta ezaugarriak
- Etorkinak eta euskara

Atal bakoitzean bi saioetan esandakoak kontuan hartuz, gai hauen inguruan Gasteizko gazte euskaldunek duten ikuspegia ondorioztatzeko saiakera egin da. Ondorio horiek osatzen dute txosten honen zati mamitsuena: azterketaren emaitzena.

Ikerketaren kokapena, ezaugarriak eta prozesuaren azalpena gehitu zaie emaitzoi eta baita ikerketa-prozesuan erabilitako zenbait material ere (eranskin gisa). Honela osatu da, beraz, emaitza nagusia den txosten hau.

5 AZTERKETAREN EMAITZAK

Atal honetan biltzen da proiektuaren emaitza nagusia. Gasteizko gazte euskaldunek euskararen inguruan duten ikuspegia eta euskararekin lotzen dituzten bizipenak bildu nahi izan dira bertan. Eztabaida saioetan hitz egindako guztiaren artetik, intereseko gaiak identifikatu dira eta aipamen ezberdinak lotuz Gasteizko gazte euskaldunen artean nagusi diren diskurtsoak azaleratzeko saiakera egin da. Gazteen ikuspegia bost gai-bloke nagusitan sailkatu da, arestian aipatutakoak:

1. EUSKARAREN IRUDIA ETA EUSKARAREKIKO JARRERA ETA AURREIRITZIAK
2. EUSKARAREN BILAKAERA SOZIALA ETA HIZKUNTZA POLITIKA
3. HIZKUNTZEN ERABILERA-OHITURAK ETA ARAUAK
4. HIZKUNTZEN IKASKUNTZA, GAITASUNA ETA EZAUGARRIAK
5. ETORKINAK ETA EUSKARA

Gai-bloke horien barnean gai zehatzagoen arabera sailkatu dira gazteek esandakoak. Horietako puntu bakoitzean gazteen diskurtso nagusia azaleratu da eta, horren osagarri, eztabaida-saioetan ateratako aipu literalak erabili dira.¹

5.1 Euskararen irudia eta euskararekiko jarrera eta aurreiritziak

Hemen biltzen da Gasteizko gazte euskaldunen ikuspegitik euskarak eta euskaldunek gizartean duten hautematea. Euskarari aitortzen zaion balioari buruz edo euskararekin lotzen diren gai eta kontzeptuei buruz esan dituztenak dira, ondorengoak.

¹ Aipu literalak tipografia etzana eta berdearekin bereizi dira. Zenbait aiputan kortxete artean testua ulertzen lagun dezaketek aipamenak sartu dira. Hizlariak sailkatzeko kode bat erabili da, eztabaida saioa (A edo B) eta hiztun zenbakia (H1, H2, H3...) konbinatuz.



Hizkuntza eta kultura

Euskara eta euskal kulturaren arteko harremana eta loturaz hainbat hausnarketa egin dira saioetan. Lehenik eta behin, euskararen inguruan kultura oso bat dela ikusarazteak euskararen alde joka dezakeela adierazi da.

(...) nik uste dut jendea kontzientziatzen baldin bada euskarak zer dakarren, o sea, dakarren kultura, berarekin eramaten duen historia guztia, jende askok... ez dakit. Orduan nik uste dut txikitatik pixkanaka hori sartzen baldin bada, jendea motibatu egingo da. Azkenean pentsatuko du zertarako balio duen, ba behintzat guk gure kultura eta jarraitzeko, ez? (A-H2)

Bide horretatik, euskal kultura Gasteizen euskara baino zabalduago dagoela, biztanleriak gehiago partekatzen duela, atera izan da.

Kultura guk gurea dugu. Nahiz eta erdaraz hitz egin mundu guztiak daki Gasteizen euskal kultura zer den eta konpartitu egiten du. (A-H5)

Hala ere, kulturak jendea, eta zehatzago gazteak, hizkuntza ikasi eta erabiltzera erakartzeko joka dezakeen papera zalantzan jartzen duten bi faktore, gutxienez, agertu izan dira. Lehenengoa zenbait gurasoren kasua da: euskal kulturaren emaria transmititzen diete seme-alabei, baina aldi berean, euskararen erabilerarekiko leialtasun falta transmititzen diete euren ereduaren bidez.

(...) guraso askok euren seme-alabak eramaten dituzte ikastoletara, gero Pirritx eta Porrotx hamaika ordu telebistan ikusten eta gero eurekin gazteleraz hitz egiten dute. Gero, "bai dagoela jaialdi bat, ez dakit non, euskararen alde... joango gara? Bai". Baina gero irteten gara hortik eta gazteleraz hitz egiten dugu. (A-H1)

Eta bigarrenik, Gasteizko gazteen artean kulturarekiko dagoen interes falta aipatu da, euskara euskal kulturaren bidez sustatzearen mugatzaile gisa.

Zuk nola ikusten duzu gaztedia, o sea, Gasteizko gaztedia gehienari inporta zaio kultura? Edo dago "hombres y mujeres" ikusten bulebarrean? (...) Esan nahi dudana da pertsona asko murgildu dela kontsumismo batean, telebistako munduan... o sea gai batzuetan kultura baztertzen dute gai batzuetan, uste dudala. (...) Eta nire ustez Gasteizen gaztediaren gehiengoari kultura ez zaio axola. (A-H1)



Hizkuntza-egoeraren kontzientzia

Hizkuntzaren inguruko hausnarketa pertsonalaz ere hainbat iritzi eman dituzte gazteek. Nagusiki jendeak Gasteizen eta Euskal Herrian bizi den egoera soziolinguistikoaren gainean duen kontzientzia txikia dela edo/eta handiagoa izan beharko lukeela baloratu dute.

Kontzientzia gutxi, inork ez duela serio hartzen. (A-H4)

(...) nik uste dut pentsatu behar dugula berez gu aberatsak izan gaitezkeela, esan nahi dut hizkuntzaren aldetik. Ditugu bi, moldatu gaitezke, ikas dezakegu eskolan hirugarrena, ingelesa, frantsesa edo dena delakoa. Eta gero ez dugula ondo pentsatzen hori, o sea... (A-H4)

Gurasoak kontzientziatu beharko lirateke (...) (A-H5)

Hombre ez zaio axola ez duelako ikasi ezta ere. Edo ez duelako eduki pertsona bat edo egoera bat bultzatu diela, edo esan diela zergatik daukagun guk euskara. Nik uste dut azkenean dela kontzientzia, ez? Zure kontzientziak nahi baldin badu jakin nondik datorren hizkuntza eta zer gertatu den eta zer gertatu daitekeen. Nik uste dut lehen gauza egin behar duguna dela hori, ez? Gauden egoera erakutsi jendeari; eta gero hor ikusiko da bakoitzak zein kontzientzia daukan. (A-H5)

(...)badago jendea, Gasteizen nire ustez euskara bere bizitzan ez duela inoiz eduki. Euskara existitzen dela bai, baina... Gasteizen euskara existitu behar dela... (B-H4)

Gasteiztar, arabar eta euskal nortasunak

Euskarak euren hiri, lurralde eta herrialdeko nortasunekin duen harremanari buruz, hainbat puntu interesgarri daude, Gasteizko gazte euskaldunen diskurtsoan. Euskara euskal nortasunaren funtsezko elementua dela onartzen da, orokorrean. Parte hartzaileak nortasun horren barruan kokatzen dira eta euskararengandik banaezina dela adierazten dute.

(...) nire ustez be bai herri honen ezaugarri bat delako eta azken batean, bueno Euskal Herria maite baduzu ba euskara bere ezaugarri bat da eta, ez dakit, oinarri, o sea, erroetan dago. (B-H3)

Euskal Herria bada da euskara delako. Euskararik gabe, egongo litzateke Euskal Herria? Ez dakit.(B-H2)

(...) ongi etorri Euskal Herrira, eta Euskal Herria da euskaraz hitz egiten den herria eta animo eta laguntza behar baduzu eskatu.(B-H4)



Euskal Herriko beste lekuetako jendearekin harremanean, gasteiztar eta arabar euskaldunak zerbait berezia bezala ikusiak direla aipatu dute. Gasteizen eta Araban gaztelania soilik erabiltzen denaren ideia oso hedatua dagoela diote. Besteek eurekiko duten pertzepzioa okerra delakoan daude. Eta, orokorrean, ez zaie gustatzen pertzepzio oker horren araberako tratua jasotzea.

(...) adibidez Gasteizen jendeak uste du, ez dakit, Espainian gaudela edo ez dakit nik. Arabakoak izateagatik, gaude markatuta. (B-H3)

Joe ematen du euskaraz hitz egiten baduzu bueno, joe izango zara zure herriko [Gasteizko] arraroena!, ba ez. (B-H1)

Niri ez didate sinistu Gasteiztarra nintzela behin baino gehiagotan. (B-H2)

Bizitza osoa entzuten bakarrik Gasteiz, ez Gasteizen, baizik eta Araban, ez dela hitz egiten [euskara] (B-H3)

Haurren hizkuntza, eskolako

Parte hartzaileek adierazten dutenaren arabera, gizartean euskarak duen irudia eskolari eta haurren munduari lotuta dago guztiz.

Pentsatzen dute gaztelera dela helduen hizkuntza eta euskara dela umeentzako edo txakurrentzako edo... (A-H5)

Bide honetatik, euskara eskolari lotutako elementutzat hautematea bere erabilerarako negatiboa dela adierazten dute.

Es que umeek iruditzen zait pixka bat geroz eta gehiago gorrotatzen dutela zeren eta inposatzen da euskara ba eskolan matematikak edo ingelera edo beste edozein gai bat bezala ez? Tituluekin edo... eskatzen den tituluekin edo eskatzen den, inposatzen den erabilera hori iruditzen zait ba euskararen erabilera murrizten dutela eta esaten duzun bezala arlo oso murriztuetan... (A-H3)

Orduan klaro, zergatik hitz egiten genuen euskaraz? Puntu positiboa irabazteko. Orduan ya klasetik kanpo puntu positiboa edo puntu negatiboa berdin zitzaidan, orduan... (B-H4)

Haurren hizkuntza bezala hautematearen atzean, gurasoen jokaera dagoela iruditzen zaie gazteei: helduen artean gaztelania eta hurrei zuzentzerakoan euskara erabiltzen dutelako, sarri. Umeek, heldu sentitu nahian, haurren hizkuntza bezala hautematen duten euskarari





uko egiten diotela iruditzen zaie. Eta uko egite hori gero eta goiztiarragoa dela ere adierazten dute.

Guraso batzuk ikusten dituzu haurrarekin euskaraz hitz egiten eta gero beraien artean gazteleraz. Eta horrek azkenean umeengan eragina du. Pentsatzen dute gaztelera dela helduen hizkuntza eta euskara dela umeentzako edo txakurrentzako edo... (A-H5)

(...) Beraz txikitatik gurasoak direla eredurik, eragin handiena duena, gazteleraz egiten badu...(A-H1)

Gurasoek ere eragin handia dute. Zuk ikusten baldin badituzu gurasoak gazteleraz hitz egiten umea zarenean, esaten duzu, "joder, nire gurasoek gazteleraz hitz egiten badute izango da garrantzitsuagoa delako, edo helduagoentzako delako, ez? Orduan nik ume asko ikusi ditut nire herrian... Ni nire bizi osoan zehar euskaraz bizi izan naiz, eta orain aldaketa ikusten ari gara, ume askok paso egiten dutela. Ez dutela nahi ikasi, ez duela nahi euskaraz hitz egin. Nik uste hor bai sartu beharko litzatekeela eskua. Gurasoak kontzientziatu beharko lirateke beraiek ezkutuan egiten dutena edo beraien artean egiten dutenak ere azkenean umei kalte egin diezaiekeela haurrei euskaraz hitz egiterako garaian.(A-H5)

Beharrezkotasuna (balio instrumentala)

Gaztelaniaz jakitea, Gasteizen bizita, beharrezkoa dela aipatzen da behin eta berriz.

Gertatzen dena da orain hemen beharrezkoa duzula jakitea bestea [gaztelania]. Hemen egoteko beharrezkoa duzu, bestela ezingo duzu inorekin hitz egin. (A-H4)

(...)baina inork ez du planteatzen gaztelania beharrezkoa den ala ez. Mundu guztiak asumitzen du gaztelania jakin egin behar dela. (B-H2)

Bestalde, euskara beharrezkoa dela sumatzen den hainbat egoera ere aipatzen dira; nagusiki lan-mundua eta hezkuntza sistemarekin lotutakoak. Horietan, bi kontu interesgarri ikus daitezke.

Alde batetik, euskarara behar objektibo batek bultzatuta hurbiltzearen jarrera gutxietsi egiten da, euskararekiko atxikimendu falta egotziz edo motibazio horrek gidatuta ikasten dutenek ez dutela erabiliko aurreikusiz.

(...)O sea que askotan iruditzen zait euskara paper bat dela... edo giltza bat, zenbait lekutan edo zenbait arlotan parte hartzeko. Eta gero paper hori edukita batzuk ahazten dira. (A-H3)

(...) nik hori ikusten dut Gasteizko euskaltegietan asko. (...)bertan dagoen giroa euskararekiko pasada bat da! O sea, jendea joaten da: azterketa! Azterketa! Azterketa! eta berdin zaio



euskara, berdin nondik dator... ateratzen da atetik eta hitz egiten ni nator E.G.A. egiteko eta ez...eta ez bere bizitza euskaraz egin nahi duelako. (B-H4)

(...)O sea, dago B eredu, azkenean gurasoak bere umea han apuntatzen dutela. Ze ez dakit, 20 urte barru behar izango duelako, baina ez egitan nahi duelako bere umea euskalduna izatea (B-H4)

Beste alde batetik, lan-munduan edo hezkuntza-sisteman euskara ikasi edo erabiltzea ezinbestez eskatzeak sor ditzakeen aurkako jarrerak aipatzen dira.

(...)nik uste Osakidetza eta holakoetan bai, o sea diot, es que daude behartuta euskaraz jakitera eta nik ulertu dezaket azkenean gorroto puntu bat edo hartzea, ze ni baita ere egon izan naiz, ba bueno hizkuntza eskola batean eta (...) klasean giroa izan zen nahiko... (...)Benetan gorrotatzen zuten euskara. Es que ulertu dezaket, ze azken finean euren lanpostua edo dago horren menpe. O sea egon dira denbora pila bat leku horretan lan egiten eta ikasi dute pila bat eta orain euskara ez edukitzeagatik-edo joan daitezke kalera, orduan daude behartuta. (B-H3)

Bestela, orokorrean, euskara jakiteko beharrik ez dela sentitzen aipatzen dute gazteek; eta Gasteizera heltzen diren etorkinen adibidea aipatzen dute hainbat kasutan, hirian bizitzeko euskara jakitea beharrezko ez dela agerian uzteko.

(...)Baina es que ez daukate beharrik. Eta ikusten dute gaztelania nahikoa dela. (A-H2)

(...)nik esango nuke ba ezetz ez, ez dela beharrik ikusten; izatekotan herri txikietan-edo ikusi liteke behar bat. Eta niretzat horren adierazgarri da, etorkinen jarrera. Etorkin asko datoz (...) eta azkenean jotzen du beharrera. Eta argi dago etorkinen kopuru handi, oso handi bat, edo handiena, ba A ereduan matrikulatzen dituztela seme alabak; ez dutela ikusten beharrik euskara ikasteko. (B-2)

Inposaketa sentsazioa eta aurkako jarrerak

Euskararen aurkako jarrerak egon badaudela baieztatzen da. Euskara gorrotatzen duen jendea dagoela adierazi dute behin baino gehiagotan parte hartzaileek. Honen jatorria, bi faktoreren bidez azaltzen dute, nagusiki, gazteek.

Alde batetik, euskararen normalizazioa helburu duten hainbat neurri (ikastetxeetan euskara erabili behar izatea edo lanpostu publikoetan euskararen ezagutza egiaztatu behar izatea) zenbaiten aldetik inposaketa bezala ulertzen direla adierazten da. Gainera, badira ulerkera honekin bat egiten duten gazteak, adostasun erabatekorik egon ez arren.



(...) orain iruditzen zait nahiko inposatuta dagoela eta... Es que umeek iruditzen zait pixka bat geroz eta gehiago gorrotatzen dutela zeren eta inposatzen da euskara ba eskolan matematikak edo ingelera edo beste edozein gai bat bezala ez? Tituluekin edo... eskatzen den tituluekin edo eskatzen den, inposatzen den erabilera hori iruditzen zait ba euskararen erabilera murrizten dutela (...) (A-H3)

(...) Gasteizko egoera zerbitzu publikoetan tamalgarria da! baina tamalgarria baino askoz gehio! Ez da bakarrikan ez dakitela askotan euskaraz, baizik eta gorrotatzen dutela (...) (B-H4)

(...) nik uste Osakidetza eta holakoetan bai, o sea diot, es que daude behartuta euskaraz jakitera eta nik ulertu dezaket azkenean gorroto puntu bat edo hartzea(...) (B-H3)

Eta beste alde batetik, baita euskara politikaren ikuspegi negatiboenarekin lotu izanak ere

(...) politizatu egin dela pilo bat, horregatik sortu da pertsona askok diote kristoren gorrotoa euskarari. (A-H1)

Gaztelaniari dagokionez, hizkuntza hau inposatu egiten dela ere adierazi izan da saioetan.

O sea inposatzen zaigu hizkuntza arrotz bat, eta ezin duzu leku askotan euskara erabili. (A-H1)

Aurreiritzi politikoak

Gasteizko gazte euskaldunek ikusten dute euskara gizartean joera politiko-ideologiko zehatz batzuekin lotzen dela, orokorrean. Lotura horrek euskararen garapenari kalte egiten diola adierazten dute, ikuspegi politiko zehatz batzuetako jendea euskararengandik urruntzen duelako. Eta era berean, desiragarritzat jotzen dute banaketa politikoek euskararen garapenaren aldeko kontsentsua oztopatuko ez duten egoera.

(...) nik uste orain dela urte batzuk baino gazte gehiagok dakigula euskara, baina beldurra ematen dit euskarari eman zaion... alde batetik politizatu egin dela pilo bat, horregatik sortu da pertsona askok diote kristoren gorrotoa euskarari. (A-H1)

(...) nik uste dut ere gertatzen dela azkenean hizkuntza ere, politikarekin harremantzen dugula ez, (...) a ver, o sea, hizkuntza kontua dela e, eta nik uste dut hori limitante handia dela gure gizartean behintzat.(B-H4)

(...) katalanak sentitzen direlako, nahiz eta kolore batekoak ala bestekoak izan katalanak sentitzen dira eta hizkuntza propioa daukate.(A-H2)

Euskaraz mintzatzean, zenbait jenderen aldetik muturreko euskal abertzaletzat edo ezker abertzaleko kidetzat ikusia izatea dakar gazte hauen iritziz.





(...) niri askotan gertatzen zait nire auzoan, euskaraz hitz egiten eta Ezker Abertzalekoa!, eta ba paso!, edo nazionalista edo...(B-H4)

ba hori politikarena, ematen du euskaraz hitz egiten baduzu ya, zarela... nazionalista... kriston extremista eta...askok hori pentsatzen dute. (B-H3)

Baina beste alde batetik, euskararekiko atxikimendua ezinbestean ikuspegi politiko zehatz batzuekin lotuta egon behar dela dioen diskurtsoa ere agertu da. Eta honi buelta emanaz, beste ikuspegi politiko batzuk dituztenen atxikimendua gutxiesten duen diskurtsoa ere.

(...) azkenean da Euskal Herria sentitzen dugunok Euskal Herria bezala, gure herria bezala euskaldun gara.,Baina orduan, Euskal Herria sentitzen ez dutenak ez dira euskaldunak? eta ez dute euskaldunak izateko eskubidea?(B-H4)

(...) Herri identitate edo nazio atxikimendu bat eduki behar da azkenean euskara benetan maitatzeko eta benetan ikusteko nire hizkuntza dela. (B-H2)

(...) igual ez da (...) linea politiko jakin batekoa exactamente, baina ez da españolista izango. (B-H2)

(...) baina hori populismoaren barruan dago, ni uste dut, ba bueno, aurpegi publikoak, PPko aurpegi publikoei bai eskatzen zaiela, incluso XXXXXX UPD ez, ya sartuta españolismo gordinenean, hori populismoa da. Baina gero baseko jende hori nik uste dut ez daukala inongo atxikimendurik. (B-H2)

5.2 Euskararen bilakaera soziala eta hizkuntza-politika

Euskararen egoera nolakoa den, historikoki nolakoa izan den, hizkuntza-normalkuntzara zuzenduta egiten den lanaren balorazioa, erakunde publikoen hizkuntza-politika eta antzeko gaien inguruan gazte gasteiztar euskaldunen ikuspegia biltzen da hemengo atal honetan.

Euskararen egoeraren balorazioa

Euskararen egoera txarra dela baloratzen da, orokorrean. Menpekotasunean dagoela adierazten dute gazteek eta euskararen erabilera ez dagoela normalizatuta. Gasteizen gutxienez, euskaraz bizitzea ezinezkoa dela iruditzen zaie.



(...) ez da inondik inora erreala esatea normalizazioan gaudela, edo normalizatzen dagoela. (B-H2)

(...) azkenean nik uste dut existitzen dela gizarte honetan, ba hori: hizkuntza baten dominazioa (...) (B-H4)

(...) niretzat ezinezkoa da gaur egun Euskal Herrian euskaraz bizitzea (...) orduan zer esanik ez Gasteiz batean (...) (B- H2)

Hala eta guztiz ere, orain arteko bilakaerari erreparatuta euskararen egoera hobetu egin dela, aurrerapausoak eman direla, azpimarratzen duenik ere bada.

Eta bueno gehiago Gasteizen zentratuz ba egia da kalean gehiago entzuten dela duela urte batzuetatik hona, baina (...) datuek erakusten dute Gasteizen erabilera ez dela %5era heltzen (...) (B-H2)

A bai, bai, aurrerapausoak egon dira mila.(B-H2)

Gasteizko egoera baloratzerakoan, Donostia aipatu da egoera hobearen eredu bezala behin baino gehiagotan. Egoera kaxkarragoaren eredutzat Nafarroa erabili da.

Hori Gasteizen nire ustez, gutxienez, argi dago gaztelera dagoela... eta ez dakit zergatik. Adibidez ni Donostian ikasten ari naiz eta euskara instituzioetan eta horrelako erakundeetan, ba euskara, vamos, nik ikusten dut. Normalean pertsona batek Donostiako toki gehienetan euskaraz hitz egiten dizu edo joaten zara liburutegi batera eta euskaraz hasten dira hitz egiten. (A-H3)

O sea, gaztelera erabiltzen den estatutik gertuago gaude gu Donostian baino. Eta gainera daukagun udaletxea ezberdina da, ditugun politikariak ezberdinak dira. (A-H1)

(...)nik hori posible ikusten dut: Gasteiz izatea Donostiaren antzeko egoera edukitzea.(B-H3)

(...)niretzako, egoeraren gogortasuna oso , oso larria da ez. (...) Eta horrela ikusten dut eta ya Nafarroako egoera ezta aipatu ere.(B-H4)

Gaurko hizkuntza-politika eta bere arduradunak

Erakunde publikoetatik gaur egun burutzen den hizkuntza-politikarekiko oso diskurtso kritikoa dute Gasteizko gazte euskaldunek. Hizkuntza politikaren arduradun instituzionalek euskararen normalizazioa helburu dutela zalantzan jartzen dute edo ukatu egiten dute, hainbatetan.

(...) ateratzen dira [irrat] lizentziak Arabarako eta hamar dira. Eta hamar horietatik zazpi dira elebidunetzako, azkenean gaztelerez egiten dutela, eta hiru euskara soilik erabiltzen





dutenentzako. Hor ikusten da zeren alde jokutzen duten edo zer bilatzen duten horrekin, ez? (A-H2)

Hori da Eusko Jaurlaritzak ez duela ezer egin nahi. Azkenean da Eusko Jaurlaritzak ez duela ezer egin nahi. Zertan oinarritzen da? Egiten ditu egiten dituen gauza guztiak... Oinarritzen dira jaialditan. (...) Horrekin zer egiten duzu? Ezer. (A-H2)

(...) instituzioek daukate esku handiena eta botere handiena... ez dute egiten! Begira Katalunia. Katalunian mundu guztiak hitz egiten du katalana. Zergatik? (...) hizkuntza sentitzen dutelako, eta katalanak sentitzen direlako, nahiz eta kolore batekoak ala besteakoak izan katalanak sentitzen dira eta hizkuntza propioa daukate. Baina hemengoak ez dute hori sentitzen. Boterean daude eta bere dirua daukate eta listo. (A-H2)

Ba azkenean instituzioek zerbaitegatik nahi du... ez euskara desagertzea baina bigarren maila batean uztea. (A-H5)

Lurraldeka hizkuntza-politika eta lege-marko ezberdinak egotea hizkuntza-normalizaziorako oztopo bezala azaltzen da.

Esan nahi dudana da ez dakidala zergatik ez garen ados jartzen, zeren da un puto caos. Es que hitz egiten ari naiz Gasteizen eta Donostian, que 100 kilometro daude... Que egia da... (A-H3)

(...) argi dago Euskal Herrian ez dagoela hizkuntza politika bateratu bat, EAEn sasi ofiziala da; Nafarroan, comunidad diferenciada delakoagatik, ba depende non zauden ofiziala izango da edo ez; eta Iparraldean ba bueno, badauka errekonozimendu bat edo hola, baina ez da inondik inora ofiziala. Orduan horrek normalizaziorako nekez emango ditu pausuak eta alderantziz, trabak jarriko ditu.(B-H2)

Beharrezko neurriak eta hizkuntza-politika

Hizkuntza-politikak euskararen erabilera areagotu nahi badu, gaur egun sentitzen ez den beharrezkotasuna eragin behar duela adierazten dute Gasteizko gazte euskaldunek: euskara ikasi eta erabiltzeko beharra.

Baina behar hori ulertzeko moduan desberdintasunak daude parte hartzaileen artean. Batzuk beharra sortzea diotenean behar legala, derrigortasuna, sortzeaz ari dira. Eta hau, hain zuzen ere, desadostasun puntu nagusietakoa da. Euskara ikasi edo erabiltzea legalki arautzen duten neurriak euskararen etorkizuna ziurtatzeko ezinbestekoak direla dioen





diskurtsoa daukagu, alde batetik. Eta bestetik, ordea, derrigortzea euskararen kalterako dela dioena.

Nire ustez, bizi garen gizartean animatzeak ez du ezertarako balio. Behartu behar duzu eta normalizatu behar duzu eta legea egin behar duzu eta... (B-H4)

Ni ez nago behartzearen alde baina bai bultzatzearen alde. (A-H4)

ikasle guztiak irten beharko lirateke euskaldunduta. (...)Horrek ez du bermatzen erabilera eta horretarako niretzat badira legeak, beste politika batzuk. (...)euskara izan behar du herri honetako berezko hizkuntza ofizial bakarra. Horrek ez du esan nahi ez dagoenik lekurik beste hizkuntza batzuetarako, jakina! Baina euskara nahi badugu nazio hizkuntza izatea eta erabilera izatea normalizatua benetan, hori da bidea! (B-H2)

Hizkuntza-politika gidatu behar duten printzipioak eta filosofia alde batera utzita, euskararen normalizaziorako, hainbat eginbehar seinalatzen dituzte gazte gasteiztarrek. Esaterako, hiztun arruntengan eragin beharra aipatzen da. Eta batez ere, bide desberdinetatik motibazioaren alderdia (euskara baloratzen irakastea, euskaraz bizi nahi duen jendea ikusaraztea, beharra sentiaraztea...) landu beharra aipatzen da.

Nik uste dut ikastetxeetan eta ikastoletan egin behar duten lehen gauza dela euskara baloratzen irakastea. Eta gero baloratzen duzunean edo ikasleek baloratzen dutenean, ba hastea beste prozesu bat eta euskara irakatsi. Baina irakatsi baino lehen uste dut baloratu behar dela. (A-H3)

Baina ez bada beharrezkoa inoiz ez du sentituko behar hori, ez? Behar hori egin behar da, palplablea. Izan behar da: noa okindegira eta euskaraz ez badakit, ogirik gabe noa. Nola egiten dugu hori? Nola sortzen dugu hori? Erradikal hutsak izanez! (B-H2)

(...) bere klientela zer da? Euskalduna. Eta zer nahi du? Kliente asko edukitzea. Eta hau logika enpresariala da; eta ni ez nago logika enpresarial edo merkantil horren alde, baina gertatzen da. (B-H4)

Nire ustez bi gauza behar dira: jende euskalduna horrelako tabernetara ailegatzea edo edozein lekutara; eta gero beste jendea ere bai hurbiltzea eta gerturatzea. (...) eta dendetako jendea azkarra baldin bada, agian hasiko da behintzat (...) ahaleginak egingo ditu eta urratsak emango ditu eta hasiko da ikasten edo dena delakoa. Ikusten badu hori (...) positiboa da, baikorra da! Pasatzen bada jende euskalduna eta ni ez banaiz euskalduna, ba agian ez dira itzuliko (...) (B-H3)





Herritarren erantzukizuna eta herri ekimenak

Euskararen berreskurapenaren helburua ez da hizkuntza-politikaren arduradun instituzionalen esku, soilik, uzten. Herritarren jokaerak berreskurapen horretan zeresan handia duela eta izango duela adierazten da. Alde horretatik, euskaldunekiko autokritika ere egiten dute eta hizkuntza-politika hiztunengan eragitera bideratu behar dela

Bai baina garbi dago boterean dagoenak zerbait egin dezakeela baina berez behean gaudenak egin behar dugula guztia. Hemengo jendeak ez baldin badu onartzen euskara azkenean ezin ditugu goikoak konbentzitu euskara aurrera atera beharra dagoela. (A-H5)

Egia da behetik hasi behar dela baina egia da goikoek laguntzen badute ba... (A-H4)

Ni uste hori azkenean igual e gu gara apur bat errudunak ze kaletik entzuten bada erdara eta baldin bagoaz medikuarengana eta erdaraz galdetzen edo azken finean e, o sea guk ez dugu erakusten behar hori, euskararekiko behar hori. (B-H1)

Etorkizuna

Gasteizen eta Euskal Herrian euskararen etorkizuna irudikatzerakoan, ikuspegi baikorrak eta ezkorrak agertzen dira Gasteizko gazte euskaldunen artean.

Belaunaldi berriek euskara ikasi ahala, hiriko euskaldunen proportzioa haztean Gasteizen euskararen erabilera haziko denaren itxaropena dute batzuk.

Bai ba. Nik uste txiki horiek hazten diren heinean, azkenean, ohitu baldin badira txikitatik euren artean euskaraz hitz egitera, nik uste dut gero harremana mantenduko dutela euskaraz. Eta nik hori posible ikusten dut: Gasteizek Donostiaren antzeko egoera edukitzea. (B-H3)

Ez dakit. Hombre egia da gure, hemengo... bueno nire gurasoen adinekoak eta horrela, askok badakitela eta erabiltzen dutela. (...) Ba alde horretatik jada gara bi generazio, ez? Orain daudenak ez badaude, eta gu bi [belaunaldiak] igotzen bagara...(A-H4)

Beste batzuk, ordea, euskararen egoerak okerrera egiteko arriskua ikusten dute. Euskarari etorkizun iluna aurreikusten diote, batez ere, politikari, hizkuntza-politika okerrari eta legea aldaketei lotutako faktoreetan oinarrituz.





Horrela jarraitzen badu nik uste dut hemendik hamar hamabost urtera gu oraindik egongo gara bizirik suertez o sea que... baina joango dela poliki-poliki... legeak aurrera badoaz, batez ere... dena doa pikutara. (A-H2)

Hombre nik uste hori: edo egoten da kristoren egoera politikoaren aldaketa edo hemendik hamabost urtera akabo, nire ustez. (A-H1)

Nire ikuspegia, nahiko pesimistagoa da. (...) egun dauden hizkuntza politikak iruditzen zaizkit ba elebitasunaren izenean, berdintasunaren izenean ez goazela benetan inongo normalizaziora. Ze berdintasunaren terminoa faltsua da nire ustez. Elebitasun berdintasun hori, hizkuntza bat guztiz mayoritarioa denean, berdintasunak ez du balio. Horien arteko berdintasunak ez du ekarriko inolako berdintasunik. Eta bueno gehiago Gasteizen zentratuz ba egia da ez kalean gehiago entzuten dela duela urte batzuetatik hona, baina (...) Gasteizen erabilera ez dela %5era heltzen eta nahiko esanguratsua da. Orduan normalizazioa niretzat ez da inondik inora erreala esatea normalizazioan gaudela edo normalizatzen dagoela. (B-H4)

Nire ustez (...) dakitenak gehiago egongo dira (...) Jende gero eta gehiagok jakingo du baina hitz egin ya.. .gainera hemen badator ere mutlilinguismoa eta horrek, adibidez, kalte asko egingo dio euskarari nik uste.(B-H3)

5.3 Hizkuntzen erabilera-ohiturak eta arauak

Gazteek zein esparrutan zein hizkuntza erabiltzen duten, nola hautatzen duten, hautu horien ondorioak eta hizkuntzen erabilerarekin lotutako beste bizipenak bildu dira atal honetan.

Harreman-sareak eta harreman-hizkuntzak

Gasteizko gazte euskaldunek adin bereko lagunen artean euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituztela diote, orokorrean. Hizkuntza-hautua, beste ezer baino gehiago, solaskidearen arabera izaten da.

(...) Eta gero bestela lagunekin, txikitatik egin dugu euskaraz eta denok egin dugu euskaraz, baina egia da geroz eta gehiago egiten dugula gazteleraz. (A-H4)

(...) eta nik onartzen dut askotan gaztelerara jotzen dudala, hori onartzen dut, eta geroz eta gehiago. Baina oraingoz uste dut nahikoa egiten dudala euskaraz eta lagunekin gehiago. (A-H1)

lagunekin betidanik erdaraz, nahiz eta denak jakin euskaraz. Betidanik hitz egiten dugu euskaraz, o sea erdaraz, barkatu! Hori ikastolan hasi ginelako eta orain, de repente, aldatzea



arraroa da. Baina jende berriarekin, pues ez dakit, nik euskaraz egiten dut. Eta unibertsitatea euskaraz eta bizi izan naiz ikasle pisu batean eta euskaraz. (B-H3)

(...) harreman aldetik ere denetarik daukat: orain saiatzen naiz euskaraz izatea; baina badago jende jakin bat, lagun jakin batzuk, gazteleraz egiten dudana beti. Orduan bi alde horiek daude. (B-H2)

Bueno da jendea ezagutzea, nik Gasteizen lagun askorekin egiten dut [euskaraz]. O sea hitz egiten dut, nire adineko jendearekin. (B-H1)

Niri haurrekin ateratzen zait euskaraz hitz egitea eta txakurrekin baita. Pentsatzen dut euskaraz jakin behar dutela. Orduan, txikiekin eta gazteekin normalean... Bueno, es que gero segun ze gazte! Egia da! (B-H1)

Nire ustez da lehen aipatzen duzuna, azken batean gazte izateak edo ez, lehenengo hitza euskaraz baldin bada, pertsona horrekin ya euskaraz hitz egingo duzu. Eta ba hori, nire koadrilan, adibidez, batzuekin euskaraz hitz egiten dut eta beraiekin hasieratik euskaraz hitz egiten nuelako, eta beste batzuekin ba erdaraz. Ba ohitura edo ez dakit. Hasieratik euskaraz hasi nintzelako beraiekin, orduan... Eta gero juergan gazteekin ez dakit. (B-H3)

Solaskideak euskara erabiltzea baldintzatzen duela esanda, norberaren harreman sarearen garrantzia aipatu da. Pertsona bakoitza zein jenderekin ibiltzen den, familian duen testuingurua, zein girok erakartzen duen, zein zonaldeetan bizi eta mugitzen den... Guzti horien arabera, bakoitzak euskaraz bizitzeko dituen aukerak aldatu egiten direla baloratzen dute parte hartzaileek.

Bueno, da jendea ezagutzea. nik Gasteizen lagun askorekin egiten dut, o sea hitz egiten dut, nire adineko jendearekin. (B-H1)

Hombre igual mugitzen zara beste zonalde batera eta igual dira bestelakoak. Nik uste dut alde handia dagoela A eremuan ikasi dutenak eta D-n ikasi dugunak. (B-H3)

Baina es que azkenean, horrek dauka niretzako arrisku bat eta da ghattizatzea. Nik euskara hitz egiten dut eta orduan, adibidez, badakit euskaraz hitz egiteko Kutxira joan behar naizela. Ba nik nahi izan dut... eta zergatik ez gara San Prudentziora joaten euskaldun guztiok? (...) lortu behar ditugu erdaldun diren espazioak euskalduntzea. Ni horren alde nago, o sea Halabedin euskaraz egingo dela badakit; eta hori oso positiboa da eta saiatu behar naiz %100a bertan hizketan; ez bakarrik %90a edo %50a. Baina badakit han dagoen jendea behintzat euskal giro horren alde dagoela. Baina saiatu behar naiz ere, El Corte Inglesera joan eta... (B-H4)

Badago. Beti identifikatzen da, adibidez, Kutxi kalea giro euskaldunarekin. Eta zergatik ez lehen aipatu dudana Dato kalea? Agian han badaude euskaldunak! (B-H3)

Hemen Dato kalean entzuten duzu euskara, zu zoazenean zure amarekin eta ni noanean nire amarekin. Inguruak dira... (A-H2)

Bai, eta auzo batzuetan gehiago, beste batzuetan ez da erabiltzen ezer (A-H4)





Parte hartzaileek adierazten dutenaren arabera zenbait pertsonarekin (baita beste gazte euskaldunekin) gaztelania erabiltzen dute eta ez dute aldaketarako aukerarik ikusten. Askotan, harremana sortzen den unean erabiltzen den hizkuntza betirako bi pertsona horien arteko harreman-hizkuntza bezala finkatzen dela esaten da. Behin harreman-hizkuntza finkatuta, aldatzea oso zaila dela adierazten dute.

Nik uste dut oso garrantzitsua dela zein hizkuntzarekin ezagutzen duzun pertsona bat, gero hizkuntza hori jarraitzeko erabiltzen pertsona horrekin. Eta nik uste dut klasean hori gertatu dela. Batzuk ezagutu dira gaztelera egiten eta beste batzuk euskara erabili dugu. Eta orain klasean daude talde ezberdinak eta haiek euren artean gaztelera hitz egiten dute, eta gero talde horiek joaten dira zuregana eta euskaraz egiten dute. Bitxia da. Denok dakigu euskaraz, baina batzuk ezagutu dira gaztelera erabiltzen eta haien artean gaztelera eta gero zurekin euskara. (A-H1)

Denok egin ditugu ikasketak euskaraz eta gero nik pertsona batzuekin ezin dut euskaraz egin. O sea, ez zaidalako ateratzen; inoiz ez dudalako hitz egin berarekin euskaraz.(...)Esan dudana lehen, egin dezake euskaraz nirekin primeran, eta ez zait ateratzen. Hor ere nire errua badaukat... o sea... (A-H4)

Nik ere badakit pertsona batzuekin nahiz eta euskaraz jakin eta nik jakin, beti egingo dut pertsona horiekin gaztelera eta beste batzuekin joango naiz euskaraz egitera. Nik uste dut hori egiten dugula denok. (A-H1)

Euskara erabili ahal izateko, eguneroko harremanetan lehen hitza euskaraz egiteak garrantzi handia duela nabarmentzen da. Zerbitzu publikoetako eta dendetako harremanetan zentratu dira, gai honi heltzerakoan. Gazteen artean lehen hitza euskaraz egiten saiatzen direnak eta ohitura hori ez dutenak daude. Batzuek, zerbitzu publikoetan saltoki pribatuetan baino gehiago egiten dutela ere adierazten dute. Gasteizen, lehen hitza euskaraz egiten duenaren aurrean, jarrera uzkurak topatzea ohikoa dela ere adierazten dute.

Ni ere banaiz zu bezalako zerbitzu publikoetan. Ni gizarte etxe batera noa, liburutegira edo dena delakoa, euskaraz egingo diot lehenengo hitza. Baina noa ogia erostera eta seguramente atzera botako naiz. (...) Eduki behar da jarrera aktibistagoa (...) behintzat azaldu behar dugu euskaldunak existitzen garela. Batzuetan badirudi ez dagoela. Ez ez, o sea, hemen gaude! Eta behar hori sortzeko lehenengo pausu bat izan liteke.(B-H2)

Niri aurrekoan gertatu zitzaidan, joan nintzela denda batera eta heldu nintzen eta bota nion "aupa!" bat baina espero nuen berak gaztelera erantzutea. Eta bat-batean esan zidan: "Kaixo". Txipa aldatu behar izan nuen eta berak esan zidan "euskaraz badakit, egidazu euskaraz", "kaixo" horrekin.(...) "kaixo" horrekin nik esan nuen: "coño, euskaraz badaki". Eta txipa aldatu behar izan nuen. Baina askotan joaten gara zuzenean gaztelera hitz egitera. Badakigu Gasteizen gaudela eta alde zaharretik kanpo joaten baldin bagara edozein





dendatara edo tabernetara, ez baduzu justu tipoa edo tipa ezagutzen eta ez baldin badakizu euskaraz badakiela gazteleraz zuzentzen zara. (A-H1)

(...) nik Bizkaia eta Gipuzkoako herrietan ikusten dudana behintzat, normalean dendara joaten zara eta euskaraz hasten da mundu guztia. Hemen denek gazteleraz egiten dizute. Ez dizute... Han nik nabaritzen dudana da, nahiz eta agian euskaraz ez jakin, agurra-edo saiatzen direla pixka bat euskaraz egiten. Hemen niri dendetan inork ez dit kaixo edo aupa esan; o sea, denak gazteleraz zuzentzen dira nigana.(A-H5)

(...)nire ustez egin behar duguna: identifikatzea erdaldun ghettoak edo erdaldun monopolioa daukatenak eta (...) joan eta "ogia", eta besteak "ogia", eta besteak "ogia"...(...) (B-H4)

Okindegira sartzen bazara eta eskatzen badiozu "ogia eta egunkaria", agian pertsona hori sentituko da... ez dakit.(B-H3)

Ez da nire arazoa hori (B-H4)

Baina gaizki sentituko da, agian. Ez dakit... (B-H3)

Mugak eta talkak

Erabili nahi duten hizkuntza hautatzean topatu izan dituzten mugak edo beste pertsonekin talka egitea eragin duten egoerak zeintzuk diren azaldu dute, erabilerarekin lotutako euren bizipenei buruz mintzatzean, gazteek.

Orokorrean, euskaldunen artean euskaraz hitz egiteko gai ez den pertsona bat egoteak, gaztelania hautatzera eramaten dituela esaten da. Hala ere, gai hau bizitzeko modu desberdinak daudela agerian geratu da. Batzuk euskara erabiltzea mugatzen zaiela sentitzen dute; beste batzuentzat normala eta egokia da euskaldunek denek ulertzen duten hizkuntzara egokitzea.

(...) Nik ezagutzen dut pertsona bat, agian ni nagoela koadrilan dena euskaraz ari naizela, bera etortzen dela eta exijitzen digula erdaraz egitera(...) Berak euskara jakin gabe. Baina niri exijitu egiten dit. Orduan nik agian pertsona horrekin ez daukat beste batekin daukadan edukazioa. Etortzen dela eta esaten didala, joe, ba sentitzen dut ez dakidala, nahiko nuke ikasi... eta saiatzen da. Saiakera horren aurrean bai egin dezakedala saiakera bat bera hor dagoenean ba erdaraz hitz egiteko. Baina nik uste dut hor alde asko dagoela... (A-H5)

Eta hori... Eta ni adibidez, familian gazteleraz, zeren ba gurasoek ez dakite, osabek ez dakite... bakarrik txikitxook dakigu. Bueno txikitxoek dakite eta gazteek ere bai. Eta horregatik gure artean ezin dugu erabili euskara ba tartean beti dagoelako aita, ama, edo osabaren bat... eta ez badakite euskaraz ba ez dut erabiliko pertsona batekin euskara, bestearekin gaztelera... familian gaude. (A-H1)





Beraz nik uste dut denok gazteleraz baldin badakigu eta batek ez baldin badaki euskaraz ezin dela euskara egin.(A-H1)

Euskararen erabileraz hitz egitean, bi baldintzatzaile nagusi daudela argi adierazten da. Lehenengoa hiztunaren hautua edo borondatea da. Aukera duenean euskara hautatzeko jarrera duen ala ez. Bigarrena, berriz, solaskideen gaitasuna da. Parean duen pertsonaren arabera, hiztunak euskara hautatzeko askatasuna duen ala ez. Euskara hautatzen badu, solaskideak ulertuko dion eta elkarrizketa modu egokian aurrera eramaterik izango duten ala ez. Bi baldintzatzaile hauen inguruan, bata edo bestearen garrantziaren inguruan, ikuspegi ezberdinak agertzen dira Gasteizko gazte euskaldunen artean. Batzuek erabilera solaskidearen ezagutzak mugatzen duela nabarmentzen duten bitartean, beste batzuentzat euskaldunen hautuak, leialtasun faltak, euskararen erabilera izan zitekeena baino urriagoa izatea dakar.

(...) ba demagun baietz; familian egin dezakezu, lagun artean egin dezakezu, aukeratu dezakezu komertzio euskalduna... (...) baina helduko da momentu bat non munizipalekin elkartu behar duzu eta ez duena inork egingo edo bizilagunarekin ezin izango duzu egin ez dakielako, edo joango zara medikuarengana eta Osakidetzan trabak jarriko dizkizute, joango zara udaletxera... (B-H2)

Azpimarratzea daudela bi oztopo. Bata jartzen digutena eta bestea guk jartzen duguna. O sea inposatzen zaigu hizkuntza arrotz bat, eta ezin duzu leku askotan euskara erabili. Baina gero bestalde erabili dezakezun lekuetan ez duzu euskara erabiltzen. O sea, inposatzen digutena eta gero guk nahi gabe, edo konturatu gabe, edo oso baldintzatuta inposatzen digutenarekin... guk total ez dugu erabiltzen.(A-H1)

Ez dakit. Igual ez da posible, igual legalki edo dena delakoa... Baina gero zuk, azken finean, egingo duzu nahi duzuna. (B-H3)

Ahal duzuna!(B-H2)

Ahal duzuna egingo duzu bai!(B-H4)





5.4 Hizkuntzen ikaskuntza, gaitasuna eta ezaugarriak

Atal honetan biltzen dira gazteek euskara ikasteko prozesuarekin eta euskarazko gaitasunarekin lotuta izan dituzten bizipenak. Hizkuntza ikasteko modu desberdinak nola baloratzen dituzten, gaitasun maila ezberdineko pertsonen arteko harremanak, euren hizkeraren ezaugarri nagusiak...

Ikaste-prozesua eta ikasteko sistema

Euskaren ikastearekin lotutako hainbat gai jorratu dituzte parte hartzaileek. Esate baterako, euskara etxean, familian, ikastea gaitasun maila altua lortzeko biderik egokiena dela ulertzen dute. Gainera, transmisio naturalaz erabilerarako motibazioa hizkuntza-gaitasunarekin batera transmititzen dela adierazten dute.

Baina nik uste dut hori zeharka ikasten duzula ez? Bueno ikasi baino, ikusi eta bizi egiten duzula. Zuk euskaraz... Nik adibidez txikitatik nire familian eta inguruan den-dena euskaraz egin dut. (...) Ez, ez, es que ez da ikastea euskara. Azkenean da bizitzea. (...) Baina nik etxean jaso dudakultura eta dena nik euskaraz jaso dut, orduan niretzako ez da ikasi egin dudala, baizik eta bizi izan dudala, ez? Euskara bere gauza guztiekin azkenean bizi egiten duzula eta mugitzen zarela bizimodu batean, ba ni oraintxe bertan euskara gabe ez naizela ikusten. Niretzako euskara galtzea izango litzateke bizitzaren zati bat galtzea bezala. (A-H5)

Ni eskolan egon nintzen eta ginen bi gela, batean guraso bat edo biak euskalduna zena eta etxean euskaraz egiten zutenak eta bestea ba ez. Eta hor kristoren alde nabarmentzen da. (...) Es que nabaritzen da asko etxean egiten duena eta egiten ez duena. Eta gero badaude beste batzuk bere kabuz lortu dutenak euskara maila hori izatea: gu baino hobeto edo berdin. Eta hori ere txalotzekoa da. Ez dutelako... joder, baliabide horiek. (A-H4)

Bestalde, hezkuntza formalean euskarak duen lekuaz mintzatu dira. Gai honetan, hezkuntza-sisteman euskararen irakaspenerako gabezia handiak daudela nabarmentzen dute. Sistemak berak edo guraso eta irakasleen jarrerak ikasleek euskarazko gaitasun egokia eskuratzeko muga direla adierazten dute.





(...)Eta ikastetxeetan askotan eskatzen da teoria asko, eta praktika gutxi. Eta gero elkarrizketa batean gutxi dakite hamar minutu hitz egiten urduri jarri gabe eta trabatu gabe. (A-H2)

Es que ikusten dut irakasten zaiela txikitan umeei irakasleei euskaraz hitz egin behar zaiela, baina berez ez dute elkarrizketarik egiten. Zer da, "andereño zer da hau"? Hori ez da elkarrizketa bat izatea. Orduan gero jolastordua eta berriz gazteleraz hitz egiten dute, eta ez dauka zentzurik. (A-H4)

Eta gainera askotan iruditzen zait ikastoletan eta institutuetan eta unibertsitateko egoeran ba euskara paper bat dela. Irakaslea ailegatzten da bere paperarekin, onartzen dute eta gero klasean... Nik behintzat adibide piloak ditut, irakasleak gazteleraz hitz egiten ziguten. Erraz zuten eh? Baina gero... (...) (A-H3)

Hizkuntza-ereduei dagokionez, ikasleen gutxieneko euskara-maila ziurtatzen duenik ez dagoela adierazi dute gazteek.

(...) O sea, B eredu batean ez zara irtengo euskaldunduta eta D ereduan batzuetan ere ez. Orduan, o sea bai, zuk ere jarrera positibo bat agertu izan bazenu euskararekiko igual beste egoera batean egongo zinateke, baina eredu linguistiko ezberdinak egongo balira eskolan seguramante euskaldunduta irten ahal izango zinateke. (B-H2)

(...) B ereduan ikasi nuen, baina oso gaizki irakatsi ziguten euskara. Orduan nire euskara maila ikastetxetik irteterakoan oso bajua ze. Ez nekien, ezin nuen elkarrizketa bat ere mantendu (B-H4)

Eredu horiek azkenean defizitarioak dira. Es que nola irteten gara ikastolatik edo ikastetxetik? Zer nolako maila edukitzen dugu? (B-H4)

Gaur egun A eredua existitza iruditzen zait lotsagarria. Gero zer, 20 urte barru euskaltegiak betetzeko? Bueno ba...es que ez dakit. (B-H1)

Hezkuntza-sistematik kanpo euskara ikastearen inguruko hainbat ikuspegi ere agertu dira. Euskaltegiara edo mintzapraktika egitasmoetara tituluek edo lanpostu aukerak erakarrita hurbildutako jendea gehiengoa denaren ideia azpimarratu dute.

(...) nik hori ikusten dut Gasteizko euskaltegietan asko. (...)bertan dagoen giroa euskararekiko pasada bat da! O sea, jendea joaten da: azterketa! Azterketa! Azterketa! eta berdin zaio euskara, berdin nondik dator... (...) ni nator E.G.A. egiteko eta ez bere bizitza euskaraz egin nahi duelako (B-H4)

(...) ni baita ere egon izan naiz hizkuntza-eskola batean. Euskarako titulua ez nuen behar, baina zer edo zer egiteko joan nintzen. Eta klasean giroa izan zen nahiko...o sea, ni nintzen bakarra.(B-H3)

Bueno baina hori gertatzen da. Ni mintzapraktikan egon naiz, mintz-alagunean eta gure taldean bazeuden bi behar zutelako AD3, punto. Eta geunden beste batzuk (bueno nik AD3 ez





daukat baina bueno), behar dugunok, baina behintzat joaten ginenak beste perspektiba batekin. (B-H4)

Mintzapraktika egitasmoak positiboki baloratu dituzte eta ildo horretatik jarraitu beharra adierazi.

(...) eta ni adibidez naiz super defensora de: klaseak gure artean ematea, tabernetan euskara klasea... Mintzalaguna adibidez proiektu oso polita iruditzen zait edo euskarazko trukeak eta holako gauzak egotea, nire ustez oso positiboa da eta Gasteizen beharrezkoa da hori egitea. (B-H4)

EGA tituluaren balioa eta beharrezkotasuna zalantzan jartzen dute, orokorrean.

(...)niri diskriminazioa iruditzen zait, adibidez, E.G.A. atera behar izatea eta ez gaztelaniaz pues ez dakit, castellano castizo! (B-H1)

Bai, niretzat E.G.A. ez da izaten adierazle... bueno bada bai adierazlea. Azterketa bat egin... azterketa baterako prestatu zaren adierazle da. Ez da euskaldun zaren adierazlea, vamos. (B-H2)

(...) Baina, niri gertatu zait. Ez daukat E.G.A. baina egidazu elkarrizketa euskaraz eta ikusiko dugu emaitza. Eta orduan esaten dute nik ez dakit. Hori gertatu zitzaidan nire lanposturako elkarrizketara joan nintzanean. Tienes el E.G.A.? Es que sin E.G.A. ... bueno egin euskaraz!

Gaitasuna eta erosotasuna

Hizkuntza-gaitasun maila eta erabilera-ohituren arteko harremanaz duten ikuspuntua ere eman dute Gasteizko gazteek. Euskaraz behar besteko gaitasuna ez duten pertsonak zenbaitetan ez dira eroso sentitzen euskara erabiliz. Alde batetik, nahi bezala adierazteko mugatuta sentitzen direlako. Baina beste alde batetik, euskaraz hobeto moldatzen diren pertsonen erreakzioak eragiten diela adierazten dute. Gaitasun mugatua duen pertsonak lotsa edo/eta beldurra sentitzea ohikoa dela adierazten dute. Eta horrez gain, zenbaitetan beste pertsonak lagundu beharrean barre edo burla egiten dutela diote. Arrazoi hauengatik, egoera batzuetan edo behin betiko euskara erabiltzeari uko egiten dion jendea dago.

(...)eta nik diskriminazioa sentitu dut. O sea, bertara ailegatu eta esaldi famatu hori: "ez baduzu kontrolatzen, zer egiten duzu euskarazko eremuan ikasten karrera? Zelako akatsak dira horiek?". Eta hori, nik karreran entzun dut asko, asko eta asko. (...) azkenean ni joaten nintzen eta esaten non: bueno ba honekin egingo dut gaztelaniaz. Total, nitaz barre egiteko... (B-H4)

(...) zuk atxikimendu bat sentitzen duzu zure hizkuntza gutxi hitz egiten delako baina, klaro, zuk hizkuntza kontrolatzen ez baduzu ere azkenean beldurrak dituzu. Niri gertatzen zait





beldurrak ditudala(...). Ditut lagunak esan dutela que ya paso tia, ez naiz sentitzen eroso [euskaraz] hitz egiten. Eta azkenean zuk zure bizitza euskaraz egiteko eroso sentitu, bueno euskaraz edo erdaraz edo ingelesez,berdin zait, eroso sentitu behar zara. Eta nik uste dut hori gaur egun Euskal Herrian ezinezkoa dela. (B-H4)

Ni adibidez euskaldun berria naiz; euskara bakarrik erabili dut ikastolan. Batxilergoan hasi naiz batzuekin erabiltzen euskara. Unibertsitatean gehiago. Baina nire haurtzaro guztia gazteleraz izan da eta zaila da hori aldatzea. (...) Baina gero egunerokotasunean errazago egiten zait gazteleraz egitea. Beraz, nik uste dut saiatu egin naizela eta kostatu egiten zait askotan, beraz ulertzen dut (A-H1)

(...) horrela ez diozu pertsona horri lagunduko. (...) Hasieran, gaizki hitz egingo duzu baina gero praktikatzuz eta, azkenean ondo egingo duzu. Nire klasean, adibidez, badago neska bat (...) ikasi duena B ereduari eta asko kostatzen zaio euskaraz hitz egitea. Eta aurkezpenak egiten dituenetan jende askok egiten du barre. Barre egiten dute "por lo bajini". Ba ez egin barre! Animaiozu eta esaiozu: gaizki hitz egiten duzula? edo kostatzen zaizula? ba animo eta segi! eta hurrengoan hobeto egingo duzu! Baina askotan euskaldunak dira okerrenak zentzu horretan. (B-H3)

Gasteizko gazteen euskara

Gasteizko gazteen artean erabiltzen den euskararen ezaugarriak buruz, adostasun handia azaltzen dute parte hartzaileek. Orokorrean, gazteen gaitasun-maila baxua dela adierazten dute; euskara pobrea erabiltzen dela. Gainera, hizkuntza akademikoa, eskolan ikasia, izan ohi dela diote.

Batuera eta pobrea, baina nik normala ikusten dut. (A-H1)

Aberatsa ez.(A-H4)

Akademikoa, ikasitakoa. (B-H4)

Horretaz gain, gazte gasteiztarren artean ohikoena euskara batua erabiltzea dela esaten da. Gasteizen euskararen bertako aldaerarik ez dagoenez, Batua erabiltzen dute familia bidez edo Euskal Herriko beste lurraldeetako jendearekin harremanean beste euskalkirik jaso ez dutenek. Hala ere, orokorrean, beste euskalkietako espresioak eskolan ikasitako euskara batuan tartekatzea ohikoa dela ere badiote.

Gero ere bai gurasoen eragina. Nire ama adibidez Bizkaikoa da, XXXXXekoa, eta orduan nik influentzia daukat Bizkaiko hizkera, XXXXXekoa, eta hemen ikasi dudana, batuera. (A-H2)

ikastolan erakutsi digute batueraz hitz egiten. Bueno, agian zure gurasoak dira beste nonbaitekoak eta baduzu beste euskalki bat. (B-H3)





Kanpora irteten garenean hartzen ditut beste hitz batzuk, ni konturatu gabe. Edo ez dakit, hitz egiten dut eta ateratzen zait “dot” bat eta harritzen naiz. (...) Orduan ez dakit, da pixka bat prestamista edo. Ez dakit nola esan, ez dakit nola azaldu. (B-H3)

Ama XXXXXekoa da eta, bueno, XXXXXXXXeko euskalkia gainera nahiko pekuliarra da baina txikitan ez zidan erakutsi; Batuera erakutsi zidan. Hala ere, jaso nuen zer edo zer asko joaten ginelako herrira baina ez naiz heldu ondo kontrolatzera. Orduan ya urteak dira erabaki nuela Batua egitea eta punto. Eta ez noa inongo nahasketa arrarorik egitera ze ez da izango ez euskalkia, ez Batua, ez... bueno ba nik Batua egingo dut eta unibertsitatean klasean ditut ez dakit zenbat euskalki; gara hogeita piko eta ia ia bakoitza punta batekoa eta ni super eroso sentitzen naiz Batua egiten.

5.5 Etorkinak eta euskara

Eztabaida saioak planteatzean bereziki lantzeko gai bezala aurreikusi ez bazen ere, saioetan gazteek mahai gainean jarri duten kontua da etorkinena. Hizkuntza-politikan etorkinekiko neurri berriak planteatu beharra aipatu da eta Euskal Herritik kanpotik etorritako jendeak euskararen gainean duen ikuspegiak hainbat aipamen agertu dira.

Lehenik eta behin, gazteei iruditzen zaie Gasteizera iristen diren etorkinek ez dutela euskarara hurbiltzeko inongo beharrik sentitzen.

Beraien gauza izan da: “gaztelerekin nahikoa dut. O sea, Euskal Herrian bizitzeko gaztelerekin nahikoa dut. Gaztelera baldin badakit ez daukat zertan beste ezer ikasi beharrik.” (A-H5)

(...)nik esango nuke ba ezetz ez, ez dela beharrik ikusten; izatekotan herri txikietan-edo ikusi liteke behar bat. Eta niretzat horren adierazgarri da, etorkinen jarrera. Etorkin asko datoz (...) eta azkenean jotzen du beharrera. Eta argi dago etorkinen kopuru handi, oso handi bat, edo handiena, ba A ereduari matrikulatzen dituztela seme alabak; ez dutela ikusten beharrik euskara ikasteko. (B-H2)

Bestalde, etorkinek bertako gizartean integratzeari begira duten jarreraz desadostasunak agertu dira. Hala ere, esan beharra dago gaiaren alderdi soziolinguistikotik haratagokoak direla.

Bukatzeko, hizkuntza politikan etorkinak euskarara erakartzeko neurriak hartu behar direla adierazi dute gazteek. Gaur egun arlo horretan egiten dena gutxiegi dela edo norabide okerrean planteatzen dela diote.



Bai, eta etorkinak. Ez dela lanketa egokia egiten beraiekin. (...). Zeren eta bestela etorkinak etortzen dira batzuk hamabi urterekin, jada daudela nahiko hazita hizkuntzaren aldetik, garapenaren aldetik eta nahiko zailtasunak izango dituzte, argi dago! Hizkuntza arrotz bat da eta denoi kostatzen zaigu beste hizkuntza bat ikastea.(...) Ba horrekin agian lanketa bat egin behar da berezia eta ezin da zuzenean joan D eredu batera. Baina hastea berarekin lanketa bat egiten eta gai direnean, azkenean, ba klasera sartzea. (A-H2)

Nik uste, arlo horretan ere bai, asko egiten dutela legeek. (..) Ematen zaizkie pisu batzuk denak leku berean, ikastoletan sartzen dira, denak ikastola berean. Azken finean lortu duguna da nire auzoko institutuan lehen zena publikoa eta betidanik hor egon dena eta familia asko pasa dira hortik, orain da etorkinentzako institutua bat-batean. Bidali dituzte denak hara. (...) Kontrolpean izatea, dena getthoetan izatea... eta horrek ez du laguntzen. (A-H1)





EMAITZEN SINTEZIA

EUSKARAREN IRUDIA ETA EUSKARAREKIKO JARRERA ETA AURREIRITZIAK

- Euskara euskal kulturaren erdigunean ikusten dute. Erabilera sustatzerakoan kulturarekiko loturaz baliatzea proposatzen dute, nahiz eta zenbait zalantza ikusi.
- Jendeak Gasteizen eta Euskal Herrian bizi den egoera soziolinguistikoaren gainean duen kontzientzia txikia dela edo/eta handiago izan beharko lukeela baloratzen dute.
- Gasteiztar, arabar eta euskal identitateen barruan kokatzen dute euren burua. Hala ere, Gasteizen eta Araban gaztelania soilik erabiltzen denaren ideia oso hedatua dagoela iruditzen zaie. Besteek eurekiko duten pertzepzioa okerra dela adierazten dute eta ez zaie gustatzen horren arabarako tratua jasotzea.
- Gizartean euskararen irudia eskolari eta haurren munduari lotuta dagoela iruditzen zaie. Eta lotura hau, gazteen artean behintzat, erabilerarako negatiboa dela. Irudi honen jatorrian gurasoen erabilera-ohiturak daudela adierazten dute; haurrek heldu sentitu nahian gero eta gazteago direlarik errepikatzen dituztenak.
- Gasteizen bizitzeko gaztelaniaz jakitea beharrezkoa dela esaten da. Aldi berean, orokorrean, ez dela euskara jakiteko beharrik sentitzen ere adierazten dute.
- Baina euskara beharrezkoa den hainbat egoera aipatzen dira, batez ere, lan-mundua eta hezkuntza-sistemarekin lotuta. Eremu hauetan euskarara behar objektibo batek bultzata hurbiltzen direnen jarrera gutxietsi egiten da, euskararekiko atxikimendu falta egotziz eta erabiliko ez dutela aurreikusiz. Gainera, zenbaitek aurkako jarrera sortzeko arriskua ikusten dio euskara ikasi edo erabiltzea ezinbestez eskatzeari.
- Euskararen aurkako jarrera duen jendea eta euskara gorroto duena badagoela diote. Jarrera horien eragile bezala, bi faktore aipatzen dituzte, nagusiki: normalizaziorako hainbat neurri inposaketa bezala ulertu izana (1) eta euskara politikaren ikuspegi negatiboenarekin lotu izana (2).
- Euskara gizartean joera politiko-ideologiko zehatz batzuekin lotzen dela iruditzen zaie, eta horrek euskararen garapenari kalte egiten diola. Euskaraz mintzatzeak muturreko euskal abertzaletzat edo ezker abertzaleko kideztat ikusia izatea dakarrela adierazten dute.
- Batzuen ikuspegitik, euskararekiko atxikimendua ikuspegi politiko zehatz batzuekin lotuta egon behar da, ezinbestean. Beste ikuspegi politiko batzuk dituztenen atxikimendua gutxietsi egiten da, zenbaiten aldetik.

EUSKARAREN BILAKAERA SOZIALA ETA HIZKUNTZA-POLITIKA

- Euskararen egoera txarra dela, beste hizkuntzekiko mendekotasunean dagoela eta bere erabilera ez dagoela normalizatuta iruditzen zaie. Gainera, Gasteizen euskaraz bizitzeko aukerarik ez dagoela deritzote.
- Iraganetik gaur egunera, euskararen egoeran aurrerapausoak eman direla ere aitortzen dute.



- Oso kritikoak dira erakunde publikoen hizkuntza-politikarekiko. Arduradun instituzionalek euskararen normalizazioa helburu dutela zalantzan jartzen dute edo ukatu egiten dute.
- Lurraldeka hizkuntza-politika eta lege-marko ezberdinak egotea oztopo gisa ikusten dute.
- Hizkuntza-politikak euskara ikasi eta erabiltzeko beharra sortu behar duela iruditzen zaie. Baina ez dago adostasunik erabili edo ikastera derrigortzea dakarten neurrien inguruan. Gazte batzuen iritziz euskararen normalizaziorako ezinbesteko neurriak diren bitartean, beste batzuek gatazka iturri eta erabilerarako oztopo bezala ikusten dituzte.
- Hizkuntza-politika hiztun arrunten motibazioan eragitera bideratzea lehentasunezko zat jotzen dute.
- Euskararen normalkuntza ez dute ulertzen instituzioen esku dagoen egiteko bat bezala. Helburua lortzekotan, herritarren jokaerak zeresan handia duela eta izango duela diote.
- Etorkizunera begira, ikuspegi baikorrak eta ezkorrak nahasten dira. Belaunaldi berriek ikasi ahala, euskaldunen proportzioa haztean erabilera haziko dela nabarmentzen dutenak daude, alde batetik. Eta bestetik, egoerak okerrera egiteko arriskua nabarmentzen dutenak; batez ere, politika-arazoen, hizkuntza-politika okerrak eta lege aldaketek eraginda.

HIZKUNTZEN ERABILERA-OHITURAK ETA ARAUAK

- Gazte gasteiztarren artean euskara eta gaztelania, biak, erabiltzen dituztela adierazten dute. Hautua solaskidearen arabera izaten dela. Horregatik, norberaren harreman sareak bakoitzak euskara erabiltzeko dituen aukerak eta ohiturak baldintzatzen dituela esaten da.
- Euskara erabiltzeko, lehen hitza euskaraz eginez identifikatzea oso garrantzitsutzat jotzen da. Gazte batzuek zerbitzu publiko eta dendetan lehen hitza euskaraz egiten dutela adierazten dute; bereziki zerbitzu publikoetan. Honen aurrean Gasteizen jarrera uzkurak aurkitzea ohikoa dela esaten dute.
- Zenbait pertsonarekin, baita gazte euskaldunekin ere, gaztelaniaz hitz egiteko hartutako ohitura aldatzea ezinezkoa iruditzen zaie parte hartzaileei. Harremana sortzean finkatzen den hizkuntza askotan betirako izaten dela ikusten dute.
- Euskaldunen artean euskaraz ez dakien pertsona bat aurkitzean, ez dela euskararik erabiltzen adierazten dute. Batzuei, euskaraz ez dakienak bere aukerak mugatzen dituela iruditzen zaie; besteek egoki ikusten dute euren hautua solaskide guztiek ulertzen duten gaztelaniara aldatu beharra.
- Euskararen erabileraren baldintzatzaile bezala, gazte batzuek hiztunaren borondateari ematen diote garrantzi gehien. Beste batzuek ordea, solaskideen gaitasunak ematen dituen aukerei.

HIZKUNTZEN IKASKUNTZA, GAITASUNA ETA EZAUGARRIAK

- Hizkuntzaren transmisio naturala (lehen hizkuntza bezala, familian transmititzea) gaitasun maila altua lortzeko biderik egokiena dela diote; besteak beste, hizkuntzaren ezagutzarekin batera erabiltzeko motibazioa ere transmititzen delako.





- Hezkuntza-sistema formalean euskara irakasteko dauden bideek gabezia handiak dituztela iruditzen zaie. Gaurko hizkuntza-ereduetako batek ere ez duela euskarazko gutxieneko gaitasun-maila bermatzen deritzote. Sistemaren gabeziak, alde batetik, eta guraso eta irakasleen jarrera, bestetik, sarritan gaitasuna eskuratzeko muga direla diote.
- Gaur egungo Gasteizko euskara ikasleen gehiengoa tituluek edo lanpostu aukerek erakarrita ikasten ari direla iruditzen zaie.
- Bereziki positiboki baloratzen dira mintzapraktika egitasmoak.
- EGA titulua, honen balioa eta lortzeko sistemarekiko zalantza handiak azaltzen dituzte.
- Ikasten ari den jendeak edo behar besteko gaitasuna ez duenak, adierazteko mugak izateaz gain, euskaraz hobeto moldatzen direnen erreakzioak jasan behar izaten dituela esaten da. Euskara erabiltzera ausartzeko lotsa edo beldurra sentitzea ohikoa dela eta batzuetan besteek barre egiten dutela iruditzen zaie. Gainera, arrazoi hauengatik eroso sentitu ez eta betirako euskara erabiltzeari uko egin dion jendea dagoela ere badiote.
- Orokorrean, Gasteizko gazteen euskarazko gaitasuna baxua dela iruditzen zaie. Erabiltzen duten euskara pobrea dela diote; eskolan ikasitako hizkuntza formala entzutea omen da ohikoena.
- Gazte gehienek euskara batua erabiltzen dute. Batzuetan, familiaren bidez edo bestelako harremanen bidez euskalkiren bat jaso dutenek, beste lurraldeetako euskalkiak ere erabiltzen dituztela diote. Gainera, ohikoa omen da beste euskalkietako espresioak euskara batuan tartekatzea.

ETORKINAK ETA EUSKARA

- Hizkuntza-politikan etorkinekiko neurri berriak behar direla nabarmentzen da. Gasteizera iristen diren etorkinek ez dutela euskarara hurbiltzeko beharrik sentitzen eta euskarara erakartzeko neurriak hartu behar direla uste dute. Gaur egun arlo honetan egiten dena gutxiegi dela edo norabide okerrean bideratzen dela iruditzen zaie.



6 AURRERA BEGIRAKO ILDOAK

18-24 urte arteko gazteak, euren ikuskerari dagokionez, pertsona eta herritar burujabeak dira; bai behintzat jende zaharragoaren neurri berean. Gainera, gazteen unibertso sinbolikoa dute erreferentzia nagusitzat; gazteen munduan bizi dira, gazte ikuskerak gidatuta, neurri handi batean.

Esperientziak behin baino gehiagotan erakutsi izan du ez dela eraginkorra erakunde eta eragile arrotzetatik gai baten inguruan izan beharko luketen ikuspegia proposatzea. Ideia hori, egitasmotik honen abiapuntuan aurkitzen da. Hizkuntzaren inguruko hausnarketa sustatu nahi da, horrekin gaur egun dituzten uste eta iritzi batzuk zalantzan jarriko dituztelakoan. Beti ere, norberak egin beharreko bidea dela jakinik.

Gasteizko 18-24 urte arteko gazte euskaldunek euskara eta honekin lotutako gaiez duten ikuspegia ezagutu da eta ezagutza hori, ikuspegiaren bertan eragiteko oinarria izan daiteke.

Gure iritziak ispilu baten gisan ipini beharko litzaieke begien aurrean Gasteizko gazte euskaldunek euskararekiko dituzten bizipen eta iritziak. Neurri batean euskararen garapenaren alde edo euskararen erabilera handitzearen aldeko jarrera adierazten duten gazteek, iritzi eta ikuspuntu horietako batzuk euskararen bidea erraztu edo oztopatzen dutela ulertzea ahalbidetuko luke honek. Eta ondoren, eurek izan beharko lukete lehentasunez aldatu edo aldarazi beharreko usteak identifikatzen dituztenak. Izan ere, aldaketa horiek emango badira, gazteen erabaki eta ekimenez emango dira.

Hau aurrera eramateko, hiru helbururi erantzuten dien egitasmoa sortzea proposatzen da:

- Gasteizko gazte euskaldunek euskararen inguruan duten ikuspegia gazteen aurrean aurkezteko aukera ematen duena.
- Gazteei gaiaren inguruan hausnartu eta eztabaidatzeko aukera ematen diena.
- Aldatu beharreko ikuskerak identifikatu eta aldaketa horien aldeko eragile aktibo bilakatzera animatzen dituena.

6.1 Interbentziarako lehentasunezko ardatzak:

Ikerlanaren ondorioetatik abiatuz, aurrez aipatuaz gain, zenbait gogoeta egin daiteke epe labur , ertain eta luzera begirako interbentzioen oinarriparrak-edo iradoki nahian.

Asmo horrekin ondoren aipatzen diren ildo orokorrak identifikatu dira: Formazio premia (1), Barne-bidaia: gogoeta eta asertibitate falta (2), Diskurtso partekatuak sortu beharra (3) eta Interbentziarako zenbait helduleku (4).

1) FORMAZIO PREMIA:

Ezagutza soziolinguistikoak urrats handiak egin ditu gurean azken urteotan, batez ere herri-erakundeetako teknikari eta herrigintzako militanteengan. Hala ere, euskaltzale askorengan eta gainontzeko herritarrengan oso mugatua da oraindik. Gabezia horrek ulertezin bihurtzen ditu euskara biziberritzearen ezinbesteko neurri batzuk, adibidez; transmisioaren garrantzia eta beste ideia xume batzuk salbu.

Halako edukiek orain arte hezkuntza sistemako curriculum-ean lekurik lortu ez dutenez, ezjakintasun hedatu horretan gazteak ez dira salbuespena, ondorioek islatzen duten bezala:

- Hizkuntza elementu isolatu gisa ulertzea. Kasurik hoberenean, kulturara mugatua, eta ez gizarte sektore guztietako zehar-lerroko osagaia dela ikusiz.
- Egoera soziolinguistikoaren –arriskuen eta horiek ekiditeko hartu beharreko neurrien- gainean gizartean dagoen kontzientzia txikia.
- Pertzepzio mugatua eta kaltegarria: gizartean euskararen irudia eskolari eta haurren munduari lotuta.
- Gizarteak bultzatutako hainbat egoeren (lan-munduko, hezkuntza-sistemakoen...) eraginez euskarara bildu direnen jarrera gutxiestea.

Adibide horiek guztiek ongi adierazten dute gazte euskaldun euskaltzaleengan hizkuntzaren egoera eta bilakaera ongi ulertzeko ezagutza soziolinguistikoan hutsune handia dagoela.



Baldintza horietan, gizartean euskararen ardura hartu beharko lukeen belaunaldiak ezin du egoera ulertu, ezta horri modu egokian erantzun ere. Euskararen lekukoa belaunaldiz belaunaldi igarotzea arriskuan dago, ez borondate edo jarrera orokor baten ondorioz, baizik eta aldekotasun ezjakinaren eraginez.

Hortaz, ezinbestekoa deritzogu formazioa areagotzeko formatu mota guztietako ahaleginak eta ekimenak bultzatzeari, ahal dela eragileen arteko elkarlanean.

2) BARNE-BIDAIA: GOGOETA ETA ASERTIBITATE FALTA:

Aurreko puntuan maila kognitiboko ezagutza zen oinarria. Oraingo honetan, aldiz, dimentsio emozionalak du pisu gehiena -baina ez bakarra-. Izan ere, gazteek zailtasun handiak dituzte gogoia eta errealitatea integratzeko eta bi-biak kontrajarrita agertzen dira beren egunerokoan: euskararen egoera osasuntsua eta sendoa izatea nahiko lukete, baina bigarren mailako joko zelaian dabilela antzematen dute; harro daude beren izaeraren ezaugarri nagusietako bat euskara delako, baina gaizki daramatzate gaitasun-mailan ikusten dituzten mugak; egunerokoan euskaraz askoz gehiago egitea nahiko lukete, baina gogo hori asebetetzeko topatzen dituzten zailtasunak astunegiak zaizkie... Asmo liluragarria versus errealitate gordina.

Nolabaiteko AMIA analisi-eskema baliatuz esan daiteke iritzi horietan mehatxuak eta aukerak topa daitezkeela.

Mehatxuak

- ▶ *Gasteizen eta Araban gaztelania soilik erabiltzen denaren ideia okerra dela adierazten dute eta ez zaie gustatzen horren araberako tratua jasotzea.*
- ▶ *Euskararen egoera txarra, beste hizkuntzekiko mendekotasunean dagoela eta bere erabilera ez dagoela normalizatuta iruditzen zaie.*
- ▶ *Gasteizen euskaraz bizitzeko aukerarik ez dagoela. Gasteizen bizitzeko ez da euskara jakiteko beharrik sentitzen.*





- ▶ *Lehen hizkuntza bezala ikastea gaitasun maila altua lortzeko biderik egokiena da, besteak beste, erabiltzeko motibazioa ere transmititzen delako.*
- ▶ *Hezkuntza-sistema formalean euskara irakasteko dauden bideek gabezia handiak dituzte. Gasteizko gazteen euskara pobrea dela diote; eskolan ikasitako hizkuntza.*
- ▶ *Euskara erabiltzera ausartzeko lotsa edo beldurra sentitzea ohikoa dela eta batzuetan besteek barre egiten dutela iruditzen zaie. Arrazoi hauengatik euskara erabiltzeari uko egin dion jendea badago.*

Gogoia eta errealitatearen artean dagoen arrakala gainditzea komenigarria litzateke, kontraesan arriskutsutik atera ahal izateko: nahia asebate ezean, horretara iristeko estrategiak garatu beharko dira. Horrela egin ezean, frustrazioaren eta euskaltzaletasuna ahultzearen arriskua letorke.

Hala ere, gazteen iritzietan egon badaude eginkizun hori ongi bideratzeko irakurketa itxaropentsuak eta jarrera proaktiboak ere bai; aukerak, azken buruan:

Aukerak

- ▶ *Aurrerapausoak eman direla ere aitortzen dute.*
- ▶ *Hizkuntza-politika hiztun arrunten motibazioan eragitera bideratzea lehentasunezko zat jotzen dute.*
- ▶ *Euskararen normalkuntza ez dute ulertzen instituzioen esku dagoen egiteko bat bezala. Helburua lortzekotan, herritarren jokaerak zeresan handia duela eta izango duela diote.*
- ▶ *Bereziki positiboki baloratzen dira mintzapraktika egitasmoak.*

Euskararen inguruan gazteek duten gogoaren eta errealitatearen artean dagoen arrakala gainditzea komenigarria litzateke; bi-biak integratzea eta erantzun, jarrera eta portaera emankorretarantz bideratzea. Hortaz, aukera eman behar zaie gazteei barne-bidaia egin dezaten, adimen emozional mailako lanketan bizipen horiek hausnartu eta norabide emankorrean bidera ditzaten.





Ariketa horretan modu intuitiboan abiatu direnek argi-itzalak ikusten dituzte; alegia, balorazio zein jarrera kontrajarriak:

Aukerak zein mehatxuak

- ▶ *Etorkizunera begira, ikuspegi baikorrak eta ezkorrak nahasten dira: euskaldunen proportzioa haztea vs. egoerak okerrera egiteko arriskua.*
- ▶ *Euskaldunen artean euskaraz ez dakien pertsona bat aurkitzean, ez da euskararik erabiltzen. Batzuentzat, euskaraz ez dakienak bere aukerak mugatzen ditu; besteek egoki ikusten dute gaztelaniara aldatu beharra.*

Hortaz, aukera egokia eskainiz gero ez dirudi zenbait gazte barne-bidai horretarantz bultzatzea oso zaila izango litzatekeenik, batzuek ariketa horretan euren kasa eta modu intuitiboan jada abiatuak direla jakinik.

3) DISKURTSO PARTEKATUA SORTU BEHARRA:

Jakina da Araban eta Gasteizen talde-identitateak erdibituta daudela. Horrek euskararen ulerkera markatzen du eta, askotan, muturreko jarrera eta jardun kontrajarriak izatera garamatza. Aurkarien arteko tira-bira horretan egoera ahulean dagoen hizkuntzak badu zer galdu, izan ere batzuen aburuz ezinbestekoa zaion babes, besteek zalantzan jarri eta errefusatu ohi dute. Sektore batentzat aurrerapausoa dena, bestearentzat derrigortasuna eta ezarpena da.

Dinamika arriskutsu horretaz jabetuta daude gazteak; baita egon litekeen irtenbideri garbirik ezari buruz ere:

- ▶ *Aurkako jarrera sortzeko arriskua ikusten diote euskara ikasi edo erabiltzea ezinbestez eskatzeari.*
- ▶ *Euskararen aurkako jarrera duen jendea eta euskara gorroto duena badagoela diote. Jarrera horien eragile bezala, bi faktore aipatzen dituzte, nagusiki:*
- ▶ *normalizaziorako hainbat neurri inposaketa bezala ulertzea.*
- ▶ *euskara politikaren ikuspegi negatiboenarekin lotzea.*





- ▶ *Euskara gizartean joera politiko-ideologiko zehatz batzuekin lotzea.*
- ▶ *Euskararekiko atxikimendua ikuspegi politiko zehatz batzuekin lotuta egon behar dela, ezinbestean.*
- ▶ *Oso kritikoak dira erakunde publikoen hizkuntza-politikarekiko: euskararen normalizazioa helburu dutela zalantzan jarri edo ukatu egiten dute.*
- ▶ *Egoerak okerrera egiteko arriskua: politika-arazoek, hizkuntza-politika okerrak eta lege aldaketek eraginda.*
- ▶ *Ez dago adostasunik erabili edo ikastera derrigortzea dakarten neurrien inguruan.*

Horregatik, aurkarien arteko borroka antzu hori gainditu ahal izateko beharrezkoa da euskararen defentsarako ideologia eta politikaz kanpoko beste funtsa bilatzea. Ildo horretatik zenbait saio hasi dira egiten gure gizartean eta egokia litzateke ideia horien inguruko hausnarketa gasteiztarren artean hedatzea, gazteak ere tarteko.

4) INTERBENTZIORAKO ZENBAIT HELDULEKU:

Gasteizko gazte jende euskaldunarengan aplikatu beharreko interbentzioa diseinatzerakoan sektore horietan dagoen pertzepzioa kontuan izatea abiapuntu egokia izan daiteke. Izan ere, gazteek beraiek barneratuta dituzten ikuspuntuak eta sentzibilitatea baliatzeak interbentzioaren eraginkortasun maila areagotu lezake.

Hortik abiatuz, gazteengandik jasotako gogoeta eta iritzien artetik interbentziorako helduleku batzuk aurki daitezke; hona hemen, lau adibide:

- ▶ *Norberaren harreman sareak bakoitzak euskara erabiltzeko dituen aukerak eta ohiturak baldintzatzen ditu.*
- ▶ *Gaztelaniaz hitz egiteko hartutako ohitura aldatzea ezinezkoa iruditzen zaie.*

Testuinguruak hizkuntza portaeretan duen pisua gazteek ezagututa, pentsatzekoa da errazago gertatuko litzaiekeela kuadillategi formatuko programa batera biltzea, non berezko taldeen hizkuntza portaera aldaraztea den xedea. Alegia, gazteak erabilerarako baldintza horren garrantziaz ez dira jabetu eta konbentzitu beharko, jada





barneratuta dutelako. Hortaz, dituzten muga mota horiek gainditzeko irtenbidea eman diezaiokeen proposamen batera jauzi egitera bultzatzea errazagoa izango da.

Baina aurretik, gazte horiei jakinarazi behar zaie hizkuntza-ohituraz aldatzea zaila, bai, baina posible ere badela. Aldatu ahal izateko gutxienez baldintza pare bat bete behar dira: talde-ekimen gisa eta modu planifikatu eta sistematikoan egitea. Alegia, gure ezaugarri kulturekin (izaera taldekoa edo gregariora, besteak beste) ia ezinezkoa dela aldaketa horren atzetik maila pertsonalean abiatzea.

Soslai eta baldintza egokiak betetzen dituen berezko talde bat kuadillategi motako programa pilotu batera gonbidatzeko aukera aintzat har liteke eta, onartzekotan, programa horren diseinua, jarraipena eta balioestea modu zorrotzean aplikatuz. Emaitez esango lukete halakoak aurrerago hedatzea egokia izango litzatekeen.

► *Lehen hitza euskaraz eginez identifikatzea oso garrantzitsua.*

Harreman berrietan lehen hitzak duen garrantzia eten gabe aipatzen da euskalgintzan eta, batzutan, gai horri heltzeko proposamenak bultzatu dira. Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzua ere ildo horretatik abiatu zen duela urte bat edo bi “Nahi baduzu, euskaraz” kanpainarekin. Kezka hori bera partekatuz, GEU elkarteak kanpaina horretara bildu zen, dinamika autonomo batekin Udalaren ekimen horri laguntza emanez.

Egoera paradoxikoa izan bada: batetik, kezka bera duten erakunde publiko zein pribatuak daude eta, bestetik, horren eskaera egiten duten herritar gazteak, baina elkarren arteko harreman, lotura eta berrik gabe. Alegia, merkatu eskema batean, eskaintza eta eskaera egon badaude, baina elkarrengandik urrun.

Galdera, beraz, hauxe da: lehen hitzaren garrantzia aipatzen duten gazteak ez lirateke gogo onez murgilduko abian dauden kanpaina horietan? Ez lukete gustura lagunduko kanpaina hori arrakastatsu gerta dadin?





- *Hizkuntza-politikan etorkinekiko neurri berriak behar direla nabarmentzen da; etorkinek ez dute euskarara hurbiltzeko beharrik sentitzen eta euskarara erakartzeko neurriak hartu behar direla uste dute.*

Etorkinak euskalgintzako hizpide dira aspaldidanik, gure gizartearen berritze eta hazkunde demografian pisu handia dutelako eta, hortaz, hizkuntza transmisioan ere bai. Horregatik, etorkinak euskarara erakartzeko ekimenak aspalditxo sortu ziren Euskal Herrian zein kanpoan. Programa horien artean bada hizkuntza gutxituko hiztunak eta etorkinak modu sistematizatuan biltzen dituenak, elkarren berri izan eta bi aldean kezka, premia, arriskuak eta abarrak elkar truka ditzaten.

Kataluniako kasu batean, adibidez, halako esperientzia ezin positibokiago baloratzen zen, duela urte batzuk, katalanaren defendatzaileen zein etorkinen aldetik: aberasgarria oso, maila pertsonalean eta sozialetik begiratuta. Hizkuntzaren gaira mugatuz, katalanera hurbiltzea integratzeko erraztasun paregabeak ematen zizkien: bertako petoak eta euren kezka ezagutzea, haiekin harreman zuzenak eta hurbilak izatea, lagun berriak egitea... Abiapuntu ezin hobea, azken buruan, hizkuntza katalana ezagutzeko, estimatzeko eta, agian, ikasten hasteko.

Arestian –3. puntu- esan bezala, euskararekin kezkatuta dauden gazteak –gazte batzuk- ez leudeke prest halako programa batetan parte hartzeko?

Adibide puntualak eta mugatuak dira hemen jaso diren gazteengandik abiatutako lau ideia hauek. Guztien oinarrian dagoen ideia da Gasteizko gazte euskaldunak euskararen alde modu aktiboan jardun dezaten aukera egokiak bilatzea eta pentsatzea,; horretarako beraien bizipen, kezka eta ezagutza mailatik abiatzea estrategia emankorra izan daitekeelakoan gaude.





Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



7 ERANSKINAK

7.1 Eranskina

BESTE LANEN AZTERKETA

Gazteak, euskara edo hizkuntzen hautematea bezalako gaien inguruan azken urteetan egin diren hainbat lan hautatu eta aztertu dira, *Gazteak eta euskara Gasteizen* ikerketaren norabidea finkatzerakoan ezagutza hori baliatzeko. Hemen jasotzen dena, azterketa horretan nabarmendutako eduki batzuk dira, soilik.

Aztertutako lanak ondorengoak izan dira:

- a) AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I. eta BARREÑA, A.; *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak (2009)* Eusko Jaurlaritza.
http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/adjuntos/erdaldunen-aurreritziak-2009.pdf
- b) SIADECO; *Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa. 30-45 urte arteko herritar euskaldunak (2010)* Arrasate Euskaldun Dezagun.
http://www.aedekarte.com/index.php?option=com_docman&task=doc_download&gid=6&Itemid=215
- c) AIZPURUA, J. "Gizarte sareak + Euskara 2.0" (2010) Udaltop
<http://www.udaltop.com/fitxategiak/dokumentuak/dokumentazioa/gizarte-sarea-eta-euskara-20.pdf>
- d) SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, URTXINTXA eta TOPAGUNEA. *Gazteen erabileran eragiten duten faktoreen azterketa.* (2010) Soziolinguistika Klusterra
<http://www.soziolinguistika.org/node/4379>
- e) AZPIAZU, Luis; "Gazteak, musika eta euskara. Arrasateko gazteen iritziak" (2010) BAT soziolinguistika aldizkaria. 78. Zenb. 17-70 orriak
<http://www.soziolinguistika.org/files/GAzteak,%20musika%20eta%20euskara%20-%20Luis%20Azpiazu.pdf>
- f) IBARRA, Orreaga; *Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa* (2011) Nafarroako Unibertsitate Publikoa
- g) PUJOLAR, J *Llengua i joves : usos i percepcions lingüístics de la joventut catalana* (2010) Generalitat de Catalunya. Secretaria de Joventut
http://www20.gencat.cat/docs/Joventut/Documents/Arxiu/Publicacions/Col_Aportacions/aportacions43.pdf
- h) BAXOK, E. eta COYOS, J.B.; *Gazteak, euskara eta aisialdia Ipar Euskal Herrian* (2011) Euskaltzaindia.
http://www.euskaltzaindia.net/dok/plazaberri/2011/urtarrila/baxok_coyos_txostena.pdf

Ikus daitekeen bezala, lanen zerranda oso anitza da. Aztertutako lan guztiek dute zerbait komunean Gasteizko ikerketarekin, baina era berean, denek dituzte ezaugarri bereizgarriak ingurune soziolinguistikoari dagokionez metodologiari dagokionez, gaiari dagokionez edo gaira hurbiltzeko ikuspegiari dagokionez.

a) Erdaldunen euskararekiko aurreiritziak eta jarrerak

Lan honetan, erdaldunen jarrera eta aurreiritziari buruz ateratako ondorioez aparte, jarrera eta aurreiritzi horiek aztertzeke erabilitako markoa edo eskema da oso interesgarria.

- JARREREN IZAERA
 - Balio instrumentala
 - Tresna
 - Badauka
 - Beharrezkoa da
 - Ingelesa
 - Tresna-arloak
 - Administrazioa
 - Etxeko-lanak
 - Irakasleria
 - Balio integratzailea
 - Badauka
 - Beharrezkoa da
 - Identitatea
 - Bi mundu
 - Bi mundu
 - Aurka
 - Motibazioa
 - Barnekoak
 - Kanpokoak
 - Ideologiak
 - Kontzientzia
 - Politizatua
- JARRERAK: ANALISIAREN ATALAK
 - Normalkuntza
 - Erabilera
 - Ikas-irakaskuntza
 - Enpresa mundua

Esan bezala, ikerketa honek, bere ondorioetan, azaleratzen dituen edukiak euskarak gizartean duen hautematea ulertzeko ezinbesteko erreferentzia dira, erdaldunen ikuspegitik abiatutako lana bada ere. Guztiak dira kontuan hartzekoak. Hala ere, bereziki nabarmendu behar dira, esate baterako, euskaraz ez dakitenean euskararekiko aurreiritzi mesedegarri eta oztopatzaileen sailkapena bezalakoak:

Mesedegarriak:	Oztopatzaileak:
<ul style="list-style-type: none"> • Euskara hizkuntza ederra da • Umeek erraz ikasten dute • Zenbat eta hizkuntza gehiago hobe • Aniztasuna aberasgarria da 	<ul style="list-style-type: none"> • Euskara zaila da • Heldutan oso zaila da hizkuntzak ikastea • Arrosa koloreko etorkizuna • Ondo hitz egin behar da • Elebitasuna ez da posiblea • Eskolan ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko • Hizkuntza bakarra hobe • Heziketa txarrekoa da parekoak ez badaki euskaraz egitea

b) Arrasaten euskararen erabilera baldintzatzen duten faktoreei buruzko ikerketa kualitatiboa.

- Euskararekiko motibazio afaktiboa eta efektiboaren artean dagoen desorekak zaildu egiten du herritarrek euskararekiko “konexio aktiboa eta praktikoa” edukitzea.
- Euskaraz jakitea ezinbestekoa dela orokorrean onartua egon arren, behar bezala ezagutzeko erabilerak duen garrantziaren inguruko kontzientzia praktikoa falta da.
- Ez dago euskara erabiltzeko beharrez kontzientzia-hartzea eragiten duen presio sozial naturalik”: euskaraz modu naturalean bizitzeko erabakiaren inguruan, ez da kontzientziarik hartzen.
- Pisu handiegia du, sentimenduak eta emozioak komunikatzeko arazoak dituen euskara “neutro” edo “lauak”, adierazgarritasun maila apaleko euskarak. (Horren adibide garbia da egoera informaletan ere euskara batua erabiltzen dela, artifizialak, edo behintzat naturalak ez diren komunikazioak sortuz).
- Badira, orokorrean euskaraz egiten diren esparruak, baina horrek berak euskararen irudia baldintzatzen du (“haur hizkuntza”, “eskola hizkuntza”, “administrazioaren hizkuntza”, etab.)
- Hainbat kasutan, pertsona eta hizkuntza identifikatu egiten dira. Horrek, bestek beste, “erreferente euskaldunak” sortzen ditu, hau da, beraien irudi edo soslai euskaldun-euskaltzalea

dela eta, “beraiekin beti euskaraz” egitea eragiten duten pertsonak. Identifikazio hau oso positiboa da orokorrean, euskararen erabilera sustatzen duelako, baina arazoak ere sor ditzake: erreferente euskaldunei, euskaraz jakin arren erabiltzen ez duten pertsonen hizkuntza ohiturei etengabe aurre egiteak eragin diezaiekeen nekea edo deserosotasuna (1) edo erreferente euskaldun horiekin izandako komunikazioak hein batean artifizialak gertatzea, komunikazioa behar bezain ona ez izatea (solaskideetako batek erregistro “ez natural-deserosoa” erabiltzen baitu).

- Solaskide gehienak euskaldunak diren egoera komunikatiboetan, euskaraz ez dakiten pertsonak egoteak, izugarri murrizten du euskararen erabilera, eta gaztelaniaz egitea “kortesia” edo “adeitasun” seinale bihurtzen da.
- Euskaraz badakiten pertsonen artean, gaztelaniaz komunikatzeko ohitura errotuta dago (eta horrek, noski, zaildu egiten du hizkuntza ohituren aldaketa. Kasu horretan, pertsona-hizkuntza identifikazioak zailtzen du aldaketa).
- Badira herritarren hizkuntza gaitasuna zabaltzea edo hedatzea mugatu, edo zabaltze horretan modu ezkorrean eragiten duten euskararen inguruko imaginarioak: imaginario hauek euskararen ikasketa eta erabilera efektiboa mugatzen dute. Sarritan, euskararen sustapen estrategia bera dira, zertxobait politizatuak, imaginario horiek sustatzen dituztenak.
- Euskararen sustapena ez da Arrasateko gizarte dinamikarekin eta eguneroko bizimoduarekin lotzen; euskararen sustapena, euskararekin bakarrik lotzen baita: “euskarak euskara besterik ez du saltzen”, “euskaraz gehiegi hitz egiten da euskarari buruz, eta ezer gutxi bizitzari buruz”.

c) Gizarte sareak + Euskara 2.0

- Euskara erabiltzeko harreman-sarea txikia denean edo harreman-sarerik ez dagoenean, gizarte-sareek mundu birtualean sarea eratzeko aukera eskaintzen dute.

d) Gazteen erabileran eragiten duten faktoreak

- Zaila egin zaie, kasu batzuetan hizkuntzaren gaia berena ez den bizipen batzuekin lotzen duten beste gazteen lekuan jartzea.



- Hizkuntza erabileran eragiten duten faktoreak sailkatzerakoan, gazteen artean maila indibidualerako joera nagusitu da nabarmen. Adituek baino faktore gehiago kokatzen zituzten maila horretan. Hizkuntza erabilera hautu pertsonal soila bezala ulertzeko joera egon liteke honen atzean.

e) Arrasateko gazteak eta euskara

- “Gazte gehienek ustez euskarak ez du gaztelaniaren egokitasuna zenbait musika mota egiteko. (...) Badirudi halako esparru informaletan erdaraz ohituragatik aritzen direla, baina oinarritzko arazoa esparru horietarako euskara egokia ez izatea dela uste dut.

f) Nafar euskaldun gazteen ahozko diskurtsoa

- Euskara ikastetxean ikasi duten eta bigarren hizkuntza gisa erabiltzen duten gazte euskaldunek adierazten dute askotan naturaltasuna falta zaiela hitz egiteko orduan eta beraiek ere konturatu egiten direla batzuetan diskurtsoa gaztelaniaz eraikitzen dutela.
- Hizkuntzak eremu akademikoetan adierazteko balio diezaieke, baina ez daukate bertze eremu batzuetan adierazteko behar den jariorik. Iruñeko gazteek nolabaiteko ukitu dialektala daukan hizkera mioresten dute, baina beraiek ezaugarri horiek agertzen saiatzen direnean, nolabait artifizial sentitzen direla esaten dute. (...) Beraiek zuzena eta egokia nahasten dituzte, eta, batzuetan, zuzendu behar ez diren esamoldeak zuzendu egiten dituzte.

g) Lengua i joves

- Azterketak ez du oinarri sendorik topatu gazte-kulturaren zenbat alderdik katalanaren kaltetan eragiten dutela pentsatzeko; hala ere, egia da 15 eta 19 urte arteko garaiei lotuta daudela zenbait kokapen eta antagonismo eta hauek sarri hizkuntzaren erabilera batzuk dakartzatela, beraiekin eralzionatzen diren kategorizazio sozialekin batera. Adin-tarte horretan gertatzen direnak baino hizkuntza-ohitura aldaketa eta katalanaren aldeko hautu gehiago gertatzea posible dela ukatu gabe, kontutan eduki behar da katalan hiztun gehienek bizi dituzten baldintzak (beste hizkuntzaren hiztun kopurua auzoan, eskolan, ingurune hurbilean...) ez direla modu esanguratsuan katalanaren aldeko hautua errazten dutenak.





- Emaitzek modu esanguratsuan ukatzen dute jatorrizko katalan hiztun gazteek katalanaren erabilera erraz baztertzen dutela dioen ustea ere. Aitzitik, “agudoak” deitutako jokaerak, bigarren hizkuntzaren erabilera maila baxuak izan ohi dituztenak, proportzionalki askoz ugariagoak dira jatorrizko katalan hiztunen artean. Hauetako askok “leialtasun linguistikoari” eusteko jarrera hartzen dute, katalanaren erabileraren alde egiteko asmoz.
- Azkenik, biztanleria gaztearen katalanarekiko atxikimendu sentimendua orokorra dela berretsi da; nahiz eta baden aurkako edo axolagabeko jarrera duen sektore bat ere. Jatorrizko katalan hiztunen artean gaztelaniarekiko aurkakostasuna edo axolagabetasuna azaltzen duen sektore bat dagoen bezalaxe. Jatorrizko katalan hiztunek katalanaren etorkizunarekiko ezkortasunerako joera dute. Jatorrizko gaztelania hiztunek, ordea, hibridizatuagoak izanik, baikortasun handiagoa ageri dute. Aurreikuspen horiek, sarri, hizkuntzaren aldeko politikei buruzko iritzia ulertzeko lagungarriak dira. Edozein kasutan, eskoletako hizkuntza-eredua eta administrazioak katalana lehenestearen inguruan adostasun maila oso altua dago. Beste arlo batzuetan, sostengu politika gehiagoren beharra aitortzen da, nahiz eta asko deseroso sentitzen diren eztabaida gehien sortzen duten gaiekin, hala nola, errotulazio komertzialarena. Honekin lotuta, nabarmentzekoa da gai linguistikoak despolitizatu behar direla dioen ikuspegiak sortzen duen adostasun erabatekoa.





7.2 Eranskina

DESKRIBAPEN KUANTITATIBOA

Bilduma hau, berariazko datu-jasoketen beharrik gabe, estatistika ofizialetatik elikatu da. Txosten honetan jasotzen da ikerketaren diseinuan baliagarri izan den hainbat informazio. Bertan biltzen diren datu gehienak EUSTATen bidez eskuratu dira: batzuk www.eustat.es webgunearen bidez, eta beste batzuk berariazko datu-eskaera eginda. Horiez aparte, Euskal Herriko Kale Erabileraren Neurketari dagozkion datuak Soziolinguistika Klusterrak kudeatzen ditu. Datu guztiak 2006 urtekoak dira, ikasketetako hizkuntza erduei buruzkoak izan ezik.

Ondorengo gaietako buruzko datuak biltzen dira txostenean:



- Euskarazko gaitasuna
- Lehen hizkuntza
- Etxeko hizkuntza-erabilera
- Kaleetako hizkuntza-erabilera
- Lehen hizkuntza euskarazko gaitasunaren arabera
- Etxeko hizkuntza-erabilera euskarazko gaitasunaren arabera
- Ikasketetako hizkuntza-ereduak



Euskarazko gaitasuna Gasteizen
Biztanleria osoan eta 18-24 urteko biztanlerian
Kopuru absolutuak eta proportzioak

	GUZTIRA	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
GUZTIRA	223.553	55.075	50.816	117.662
18-24 urte	18.055	10.041	5.028	2.986


	GUZTIRA	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
GUZTIRA	%100	%24,6	%22,7	%52,6
18-24 urte	%100	%55,6	%27,9	%16,5



Gaitasun aldetik desberdintasun handia dago Gasteizko egoera orokorra eta 18-24 urteko belaunaldiaren egoeraren artean. Gasteizen euskaldunak biztanleriaren laurden bat dira (%25); 18-24 urteko Gasteiztarren artean, ordea, erdia baino gehiago (%56) euskaldunak dira.

Gasteizko biztanleriaren euskarazko gaitasuna
Biztanleria osoan eta adin-taldeka
Gaitasun-kategoria bakoitzaren adin-banaketa

	GUZTIRA		Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
GUZTIRA	223.553	%100	55.075	%100	50.816	%100	117.662	%100
≤3 urte	2.090	%0,9	-	-	-	-	-	-
4-10 urte	12.959	%5,8	7.540	%13,7	3.512	%6,9	1.907	%1,6
11-17 urte	12.744	%5,7	8.461	%15,4	2.837	%5,6	1.446	%1,2
18-24 urte	18.055	%8,1	10.041	%18,2	5.028	%9,9	2.986	%2,5
25-31 urte	27.654	%12,4	10.106	%18,4	10.231	%20,1	7.317	%6,2
32-38 urte	28.080	%12,6	6.360	%11,6	10.938	%21,5	10.782	%9,2
39-45 urte	26.020	%11,6	4.924	%8,9	6.348	%12,5	14.748	%12,5
46-52 urte	23.503	%10,5	3.178	%5,8	4.209	%8,3	16.116	%13,7
53-59 urte	21.455	%9,6	1.554	%2,8	2.637	%5,2	17.264	%14,7
60-66 urte	17.861	%8,0	890	%1,6	1.632	%3,2	15.339	%13,0
67-73 urte	13.345	%6,0	697	%1,3	898	%1,8	11.750	%10,0
≥74 urte	19.787	%8,9	1.324	%2,4	1.113	%2,2	17.350	%14,8




Gasteizko euskaldunen profila biztanleria osoarena baino gazteagoa da. 18-24 urteko gazteak biztanleriaren osoaren %8a dira; baina 18-24 urteko euskaldunak euskaldun guztien %18a dira.

Biztanleria osoan eta adin-talde zaharrenetan erdaldunak gehiengoak izan arren, adin talde handienetan gehiago dira euskaldunak

Gasteizko biztanleriaren lehen hizkuntza
Biztanleria osoan eta 18-24 urteko biztanlerian
Kopuru absolutuak eta proportzioak

	GUZTIRA		LH- Euskara		LH- Gaztelania		LH- Biak		LH- Beste bat	
GUZTIRA	229.668	%100	8.028	%3,5	206.545	%89,9	6.248	%2,7	8.847	%3,9
18-24 urte	18.055	%100	542	%3,0	15.783	%87,4	752	%4,2	978	%5,4




Lehen hizkuntzari dagokionez, 18-24 urteko gazteen proportzioak Gasteizko biztanleria osoaren antzekoak dira. Gaitasunean ikusitako aldeak, beraz, euskara bigarren hizkuntza bezala ikusitako gazteen proportzioari egotzi diezaizkiegu.



Gasteizko biztanleriaren etxeko hizkuntza-erabilera
Biztanleria osoan eta 18-24 urteko biztanlerian
Kopuru absolutuak eta proportzioak


	GUZTIRA		Etxean Euskara		Etxean Gaztelania		Etxean Biak		Etxean Beste bat	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA	229.668	%100	4.409	%1,9	213.721	%93,1	8.261	%3,6	3.277	%1,4
18-24 urte	18.055	%100	472	%2,6	16.525	%91,5	752	%4,2	306	%1,7



18-24 urteko gazteek etxean, erabilerari dagokionez, bizi duten testuingurua Gasteizko biztanleriak, orokorrean, bizi duena da. Ia etxe guztietan (%92-93) gaztelania soilik erabiltzen da. Beraz, kasu honetan ere esan daiteke ez dela etxeko erabilera izan 18-24 urteko gazteen artean hiriko biztanleen artean baino euskaldun proportzio handiagoa egotea eragin duena.

Gasteizko kaleetako hizkuntza erabilera Araba eta Euskal Herrikoarekin alderatuta
Biztanleria osoan eta 15-24 urteko biztanlerian
1989-2006 bitarteko datuak
Euskararen erabilera-proporzioak

URTEA	Euskal Herria		Araba		Gasteiz	
	Biztanleria osoa	Gazteak (15-24 urte)	Biztanleria osoa	Gazteak (15-24 urte)	Biztanleria osoa	Gazteak (15-24 urte)
1989	%10,8	%8,5	%3,9	%3,3	%2	%2
1993	%12	%10,4	%3,9	%3,5	%2,5	%2
1997	%13	%11,9	%3,8	%3,6	%2,9	%3,4
2001	%13,5	%13,6	%3,3	%3,7	%2,8	%3,4
2006	%14,2	%13,8	%4,7	%6,6	%4	%6,3





Kaleetako erabilerari dagokionez, Euskal Herrian eta Araban bezala, Gasteizen bilakaera gorakorra izan du euskararen erabilerak 1989tik 2006ra. Gazteen sektorearen erabilera, biztanleria osoarena baino gehiago hazi da, Gasteizen. 1989an parean zeuden datuak eta 2006an, berriz, gazteen erabilera 2,3 puntu altuagoa da.

Gasteizko biztanleriaren lehen hizkuntza euskarazko gaitasunaren arabera
Biztanleria osoan eta 18-24 urteko biztanlerian
Kopuru absolutuak eta proportzioak

		GUZTIRA	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
GUZTIRA	GUZTIRA	223.553	55.075	50.816	117.662
	LH- euskara	7.578	6.245	1.063	270
	LH- gaztelania	201.658	41.955	46.726	112.977
	LH- biak	5.558	4.126	1.211	221
	LH- beste bat	8.759	2.749	1.816	4.194
18- 24 urte	GUZTIRA	18.055	10.041	5.028	2.986
	LH- euskara	542	463	56	23
	LH- gaztelania	15.783	8.563	4.608	2.612
	LH- biak	752	626	91	35
	LH- beste bat	978	389	273	316

		GUZTIRA	Euskaldunak	Ia euskaldunak	Erdaldunak
GUZTIRA	GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
	LH- euskara	%3,4	%11,3	%2,1	%0,2
	LH- gaztelania	%90,2	%76,2	%92,0	%96,0
	LH- biak	%2,5	%7,5	%2,4	%0,2
	LH- beste bat	%3,9	%5,0	%3,6	%3,6
18- 24 urte	GUZTIRA	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
	LH- euskara	%3,0	%4,6	%1,1	%0,8
	LH- gaztelania	%87,4	%85,3	%91,7	%87,5
	LH- biak	%4,2	%6,2	%1,8	%1,2
	LH- beste bat	%5,4	%3,9	%5,4	%10,6




Gasteizko euskaldun guztien artean zati handiagoa osatzen dute euskara lehen hizkuntzatzat izan dutenek, gazteen artean baino. Gazte euskaldunen %11k soilik izan du euskara edo euskara eta gaztelania lehen hizkuntzatzat.

**Gasteizko biztanleriaren etxeko hizkuntza-erabilera euskarazko gaitasunaren arabera
Biztanleria osoan eta 18-24 urteko biztanlerian
Kopuru absolutuak eta proportzioak**

		GUZTIRA		Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
GUZTIRA	GUZTIRA	223.553	%100	55.075	%100	50.816	%100	117.662	%100
	Etxean euskara	4.247	%1,9	4.144	%7,5	103	%0,2	0	%0,0
	Etxean gaztelania	208.154	%93,1	44.304	%80,4	48.580	%95,6	115.270	%98,0
	Etxean biak	7.932	%3,6	6.239	%11,3	1.693	%3,3	0	%0,0
	Etxean beste bat	3.220	%1,4	388	%0,7	440	%0,9	2.392	%2,0

		GUZTIRA		Euskaldunak		Ia euskaldunak		Erdaldunak	
18-24 urte	GUZTIRA	18.055	%100	10.041	%100	5.028	%100	2.986	%100
	Etxean euskara	472	%2,6	472	%4,7	0	%0,0	0	%0,0
	Etxean gaztelania	16.525	%91,5	8.852	%88,2	4.854	%96,5	2.819	%94,4
	Etxean biak	752	%4,2	631	%6,3	121	%2,4	0	%0,0
	Etxean beste bat	306	%1,7	86	%0,9	53	%1,1	167	%5,6




Gasteizko gazte euskaldunen etxeko erabilera-giroa, Gasteizko gazteenaren antzekoa da. Hamar gaztetik bederatzi gaztelaniaz egiten den etxeetan bizi da.



**Gasteizko ikasleen ikasketetako hizkuntza-ereduak
1990etik 2009ra
Kopuru absolutuak eta proportzioak**

	1990	1995	1999	2004	2009
Guztira	50881	43131	35967	37884	42826
A	41430	32112	22311	19231	17261
B	6737	5619	7358	10243	13257
D	1366	5237	6221	8410	12308
X	1348	163	77	0	0

	1990	1995	1999	2004	2009
Guztira	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0	%100,0
A	%81,4	%74,5	%62,0	%50,8	%40,3
B	%13,2	%13,0	%20,5	%27,0	%31,0
D	%2,7	%12,1	%17,3	%22,2	%28,7
X	%2,6	%0,4	%0,2	%0,0	%0,0



1990etik 2009ra A ereduako matrikulazioa %81a izatetik %40a izatera pasa da. Gaur egun, A ereduak ikasteredu jendetsuena den arren, B ereduako matrikulazio kopurua eta D ereduak ez daude hain urrun. Matrikulazioen joera garbia da: euskarazko ereduak hazi eta A ereduak murriztekoak.





7.3 Eranskina

KONTAKTAZIO GALDETEGIA

Eztabaida saioetan parte hartzeko profil zehatz batzuetako gazteekin kontaktatu behar zen. Kontaktazio lan hau Gasteizko Udala, Soziolinguistika Klusterra eta Gasteizko hainbat talde eta elkarteren bitartez burutu da. Ikerketaren helburuak agerian utzi gabe, parte hartzeko prest zeuden gazteen artetik egokienak hautatu ahal izateko erabili da ondorengo orrietako kontaktazio-galdetegia.





IKERKETA GASTEIZEN.

Kontaktazio Galdetegia

Soziolinguistika Klusterrak ikerketa bat egingo dugu Gasteizen 2012an. Bertan hainbat gazteren iritziak eta ikuspegiak jaso eta kontuan hartu nahi genituzke. Aurrean duzun galdetegi hau, ikerketan parte hartzeko jendea bilatzeko modu bat da. Hau erantzuteak ez dizu inongo konpromisorik eskatzen. Galdetegi hauetan jasotako datuak ez dira inongo datu-basetan gordeko, bilatzen dugun jendearekin harremanetan jartzeko modu bat da, soilik.

Betetzekotan, egia erantzunez betetzea eskatzen dizuegu.

Mila esker zuen laguntzagatik!

Izena: _____

E-posta: _____ (Ez baduzu begiratzen ez bete)

Telefono mugikorraren zenbakia: _____

Zein talde/elkarte/erakunderen bidez jarri gara zurekin harremanetan?

1. Sexua

- Neska
- Mutila

2. Zein da zure jaiotza data?

_____/____/____

3. Hiru urte bete arte, zein izan zen etxean ikasi zenuen hizkuntza?

- Euskara
- Gaztelania
- Biak
- Beste bat

Zein? _____

4. Zer moduz moldatzen zara euskaraz... (Seinala ezazu X batez)

	Gaizki	Erdizka	Ondo
...ulertzeko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...hitz egiteko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...irakurtzeko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
...idazteko	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>





5. Zer moduz moldatzen dira zure familiakoak euskaraz hitz egiteko?

	Gaizki	Nekez	Ondo
Ama	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Aita	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Anai-arreba(k)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

6. Etxekoak denak batera mahaian zaudetenean zein hizkuntzatan hitz egiten duzue?

- Beti edo gehienetan gaztelaniaz
- Bietan berdin
- Beti edo gehienetan euskaraz
- Beti edo gehienetan beste hizkuntza batean. Zein? _____
- Euskaraz eta beste hizkuntza batean. Zein? _____
- Gaztelaniaz eta beste hizkuntza batean. Zein? _____

7. Zenbatek daki euskaraz zure auzoko edo herriko lagun-taldean?

- Inork ere ez
- Gutxienek
- Erdiek edo
- Gehienek
- Denek

8. Hizkuntzari dagokionez, zein ikasteredutan ikasi duzu Lehen eta Bigarren Hezkuntzan?

- A eredu (Ikasgai guztiak, hizkuntzak izan ezik, gaztelaniaz)
- B eredu (Ikasgai batzuk euskaraz eta beste batzuk gaztelaniaz)
- D eredu (Ikasgai guztiak, hizkuntzak izan ezik, euskaraz)

9. Hauetakoren batean parte hartzen duzu?

- Auzo-elkartea
- Aisialdi-taldea
- Kirol-taldea
- Antzerki-taldea
- Dantza-taldea
- Mugimendu soziala
- Gobernu Kanpoko Erakundea (GKE)
- Mugimendu politiko
- Bestelako kultur taldea
- Bestelako taldea. Zein? _____

Mila esker!

